



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

AIARAKO UDALAK 2022ko MAIATZAREN 19an EGINIKO OHIKO OSOKO BILKURAKO AKTA

PRESIDENTEA

Gentza Alamillo Udaeta jauna

ZINEGOTZIAK

Montse Angulo Solloa jauna

José Antonio Bartolomé Pesquera
jauna

Susana Martín Benavides andrea

Itxaso Gorbeña Allende andrea

Unai Campo Arenaza jauna

Karmele Población Martínez andrea

Marian Mendiguren Mendíbil andrea

Koldo Mendioroz Goldaraz jauna

Iratxe Parro Uzquiano andrea

Arespalditzan, udaletxeko bilkuren aretoan, bi mila eta hogeita biko maiatzaren hemeretzian, hemeretziak direnean, Udalbatza Osoa modu telematikoan bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Gentza Alamillo Udaeta alkate jauna da burua eta albo batean adierazitako zinegotziak bertaratu dira, eta bilera deitu da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 46 b) artikuluan xedatutako aurrerapenarekin. Naiara Lazpita Marcos andrea da idazkaria.

EZ DIRA BERTARATU:

Iñigo Pinedo Vadillo jauna

IDAZKARIA

Naiara Lazpita Marcos andrea

Alkate jaunak ongietorria egin die guztiei, eta, beste iruzkinik egin gabe, **GAI-ZERRENDAN** jasotako puntu hauek jorratzeari ekin diote:

1.- Onestea, bidezkoa bada, 2022ko apirilaren 25ean eginiko ohiko bilkuraren akta

Idazketan dauden hainbat akatsak zuzendu ondoren, ez da horren inguruko beste adierazpenik egin eta Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute akta.

2.- Onestea, bidezkoa bada, Vital Fundazioarekin hitzarmena, Aiara Lagunkoia proiektua finantzatzeko

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Hori dela bide,

IKUSI DA.- 2022ko laguntza deialdia, Vital Fundazioak argitaratuta eta Arabako elkarte eta erakundeek garatuko dituzten proiektuetarako dena.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Aiara Lagunkoia proiektua aurkeztu du, izaera sozial nabarmenarekin, eta Vital Fundazioak hori laguntzea erabaki du 4.000 €-ko laguntza ekonomikoa emanez.

IKUSI DA.- Espedientean jasota dagoen Aiarako Udalaren eta Vital Fundazioaren arteko lankidetzaz-hitzarmenaren proposamena. Hitzarmena aipatutako laguntza emateko erabiliko da.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU:**

Lehenengoa.- Vital Fundazioaren eta Udalaren arteko lankidetzaz-hitzarmena onestea, "Aiara Lagunkoia" proiektua laguntzeko. Testua hau da:

VITAL FUNDAZIOA ETA AIARAKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

Vitoria-Gasteizen, 2022ko maiatzaren 5ean

BILDUTAKOAK

Alde batetik, **Gentza Alamillo Udaeta**, 44686448R NAN zenbakiarekin eta Aiarako Udalaren (hemendik aurrera Entitatea) izenean eta ordezkatzuz, P0101100F zenbakiarekin, Alkate-Udalburua dela.

Bestalde, **Jon URRESTI GARCIA**, Vital Fundazioaren izenean eta ordezkari dela, IFK zk. G0104050. Jakinarazpenak jasotzeko helbidea Aiztogile K. 24 –Sokagile Etxea–, 01001 Vitoria-Gasteiz da, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan dago, 150 erregistro zenbakiarekin. Urresti jauna entitatearen presidentea da.

Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen dute Lankidetzaz-hitzarmena emateko eta betetzeko. Horretarako

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



ADIERAZTEN DUTE

- I. 2022ko urtarrilaren 14an Vital Fundazioak oinarriak argitaratu zituela eta 2022ko Laguntzen Deialdia jarri zuela (aurrerantzean 2022 Deialdia), Arabako elkarte eta erakundeek garatuko dituzten proiektuetarako dena.
- II. 2022ko deialdiaren helburua honako arlo hauetako proiektuak garatu eta sustatzen dituzten elkarte eta erakundeak laguntzea dela: gizarte-laguntza eta -inklusioa, arreta dibertsitate funtzionalari eta desgaitasunari, heziketa eta formakuntza, enplegua, gazte eta bazterketa egoeran egoteko arriskuan dauden kolektiboak lan-mundura sartzea laguntzea, lurraldearen garapena, euskara laguntzea eta elkarbizitza linguistikoa, kultura, lankidetzak, genero-berdintasuna eta kulturarteko edo gizarteko elkarbizitza sustatzea, ikerketa zientifikoa, berrikuntza eta garapen teknologikoa, ingurumena eta jasangarritasuna, etab.
- III. Elkarteak egoitza soziala Araban duela, eta Vital Fundazioak bere helburu eta jardueraren eremuarentzat egokitzat duen 2022 Deialdirako proiektua aurkeztu duela, deialdia garatzeko bideragarria eta jasangarria den aurrekontua duena. Hori dela eta, Vital Fundazioak, 2022 Deialdiaren esparruan, elkarteari 4.000 euroko laguntza ematea adostu du, eta horretarako bi aldeek Lankidetzak-hitzarmen hau (aurrerantzean "hitzarmena") sinatzen dute, hauetan oinarritzen dena:

HIZPAKETAK

Lehenengoa. Vital Fundazioak erakunde/elkarteari 4.000 euroko laguntza ematea erabaki du, "Aiarako Lagunkoia" izeneko Proiektua laguntzeko. Proiektuaren helburua ondare historiko kulturala mantentzea du, baita izaera sozial, laguntzakoa eta lurraldea sustatzeko programetan laguntzea ere, aurkeztutako proposamenaren arabera.

Emandako laguntzaren ordainketa ES4620953258231095221627 kontuan egingo da, onuradunaren titulartasuna duena, Kutxabank bankuan, eta ordaintzeko modua honako hau izango da:

- % 75 (3.000 euro) hitzarmena sinatzean ordainduko da.
- Gainerako % 25 (1.000 euro) proiektu osoa egin dela egiaztatzen denean ordainduko da. Hori egiaztatzeko proiektuaren Azken egikaritze eta ekonomia Memoria aurkeztuko da.

Proiektua amaitzean, kasu guztietan 2022ko abenduaren 15a baino lehen, Elkarteak proiektuaren Azken egikaritze eta ekonomia Memoria aurkeztuko du, eta horrek jasandako fakturen kopia izan beharko du.

Bigarrena. Aipatutako laguntzaren onuraduna den erakunde/elkarteak jakitera emango du Vital Fundazioa proiektuaren entitate laguntzailea dela proiektuari buruz egiten diren sustapenerako eta jakinarazpen euskarri guztietan, bereziki hedabideei helarazten zaien prentsa-ohar eta oharretan. Vital Fundazioaren marka honako hauetan egongo da agerian:

- I. Webgunean, www.fundacionvital.eus webgunerako esteka den pankarta gisa.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



- II. *Jardueraren berri ematen duten eskuorri, kartel, kamiseta eta gainerako komunikaziorako euskarrietan.*
- III. *Sare sozialetan etengabeko lotura @vitalfundazioa.*
- IV. *Jarduera zabaltzeko erabiltzen den beste edozein euskarri.*
- V. *Entitate biek Lankidetzeta-hitarmena honen edota horrek aurreikusten dituen ekintzen jakinarazpenak koordinatuko dituzte.*
- VI. *Komunikazio guztia euskaraz eta gaztelaniaz egongo da.*

Hirugarrena. *Erakunde/elkarteak aurkeztutako proiektuaren garapen eta egikaritzea era zuhurrean betetzeko konpromisoa hartzen du, baita arlo fiskal, zerga, lan eta gizarte segurantzako beharrak eguneratuta izatea, alderdi horiek Vital Fundazioari frogatuz, horrek eskatzen duenean. Era berean, Vital Fundazioari aurkeztutako proiektua eginezina edo asko aldatzen duen edozein gertaera jakinarazi beharko zaio.*

Laugarrena. *Vital Fundazioa lehenengo epean ordaindutako zenbatekoa erreklamatzeko eskubidea erreserbatzen du, proiektuaren egikaritzea amaitzen ez bada edo aurkeztutako proiektuan ezarritako oso baldintza desberdinetan egikaritzen bada.*

Bosgarrena. *Hitzarmen honetan parte hartzen duten pertsonen datu pertsonalak alde bakoitzaren fitxategietan sartuko dira, haiekin harremanetan egoteko eta hitzarmen honetatik eratorritako harremana kudeatzeko, eta bi aldeek datuak eskuratzeko zuzentzeko, ezabatzeko eta horiei aurka egiteko eskubidea izango dute, bai eta haien erabilera mugatzeko, datuen eramangarritasuneko, banakako erabaki automatizatuen jomuga ez izateko eskubidea ere, eskaerari lotutako datuen erlazioan; horretarako, dagokion aldeari komunikazio bat helaraziko diote, hitzarmenaren goiburuan adierazitako helbideetara. Tratamenduaren arduraduna erakunde/elkartea da, eta VITAL FUNDAZIOA horren arduraduna da.*

Seigarrena. *Erakunde/elkarteak Programa antolatu eta egiteko ardura osoa hartzen du, eta, kasua denean, horrek ekar dezakeen edozein kalte-galeraren ardura hartuko du, Vital Fundazioa kontzeptu horren gaineko edozein erreklamazioataz libratuz.*

Erakunde/elkarteak Erantzukizun Zibileko poliza izan beharko du sinatuta lehen mailako aseguru-erakundearekin. Poliza horrek erakunde/elkarteak izan dezakeen erantzunkizun zibila estaltzen du, indarrean dagoen araudia eta hitzarmenean jasotako xedapenekin bat etorritik.

Zazpigarrena. *Erakunde/elkarteak ezarritako asegurieta egunean egoteko konpromisoa hartzen du. Haren langileen Gizarte Segurantzako kuotak likidatu eta ordaintzea erakunde/elkartearen kontu eta kargura bakarrik egongo dira.*

Vital Fundazioak eskatzen duen guztietan, erakunde/elkarteak akordioaren xede diren zerbitzuak egiteko kontratatutako langileen Gizarte Segurantzako betebeharren ordainketa egunean dituela frogatzen dituzten beharrezko egiaztagiriak aurkeztuko ditu.

Kontratuarekin langileek, erakunde/elkarteari zerbitzuak ematean, beti izango dituzte lan eskubideak Vital Fundazioarekin, eta ez da inoiz kontratu honetan bereziki adostuta ez dagoen beste harreman motarik sortuko.



Hitzarmena garatzeko beharrezkoak diren langileen gastu guztiak erakunde/elkartearen kontu eta kargura egongo dira, zehazki, soldatak, kalte-ordainak, sor daitezkeen zerga edo atxikiak, gizarte-aseguruak, etab.

Zortzigarrena. Programa egiten hasten den unean, erakunde/elkarteak indarrean dagoen autonomia-erkidegoko legediak zein Programa garatzeko aplikagarriak diren Udal Ordenantzek behartzen dituzten lizentzia eta baimena guztiak izan beharko ditu. Erakunde/elkartearen kontu eta kargura egongo dira garatuko den jarduerak ekar ditzakeen zerga, ekarpen edo tasa guztiak.

Era berean, erakunde/elkarteak segurtasun eta osasunaren gaineko indarrean dauden arauak betetzeko konpromisoa hartzen du, bereziki ekitaldi, segurtasun eta suteen aurkako neurriak garatzeko gehieneko edukierari dagokion arauak.

Bederatzigarrena. Programa kudeatu eta koordinatzeko, Vital Fundazioak zein erakunde/elkarteak solaskide bakarria izendatu beharko dute.

Solaskideak alde bakoitzak izendatutako pertsona izango dira, akordioak irauten duen bitartean gerta daitezkeen gertakariak konpontzeko eta akordioa egikaritzean mahaigaineratzen diren zalantza guztiak argitzeko.

Hamargarrena. Kontratua Programaren egikaritze-epean egongo da indarrean, eta edozein kasutan indarraldia 2022ko abenduaren 15ean amaituko da.

Hamaikagarrena. Honako hauek dira Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak, erakunde/elkarteak jasotako zerbatekoak itzultzeko beharra ekar dezatenak, hitzarmeneko klausuletako edukiak edo ondorengoak bete ezean:

- a) Ekarpen ekonomikoa, osoa edo partziala, Hitzarmenaren xede den Programa garatzek erabiltzen ez bada.
- b) Programaren onuradunek emandako informazioan oinarrituta, ez badira Programa martxan jarri eta garatzeko helburuak betetzen direla frogatzen, bereziki garatutako jarduera eta Programaren jasotzaileen tratua kalitateari dagokionez.

Hamabigarrena. Harreman eta zabaltzeko jarduera guztietan hizkuntza eta irudien erabilera inklusiboa eta ez sexista erabili beharko da, berdintasun, dibertsitate, rolen aniztasuna eta erantzunkidetasun baloreak sustatuz, era transbertsalean, Programa osoan eta iragarki eta harremanetan.

Hamairugarrena. Erakunde/elkarteak gaztelania eta euskara erabili beharko du Programa izapidetu, kudeatu eta egikaritzen den bitartean jartzen diren iragarki, errotulu eta seinaleztapen elementu guztietan. Erabiltzaileekin harreman zuzena ekartzen duten jarduerak egiten badira bi hizkuntza koofizialak erabili beharko dira.

Hamalagarrena. Erakunde/elkarteak Hitzarmenarekin lotutako ekitaldi edo jardunaldi guztietan osasun-agintaritzek ezarritako neurriak bete eta betearazteko konpromisoa hartzen du.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Egungo pandemia egoerak sortzen duen ezjakintasuna dela eta, alde biek badakite gerta litekeela Programako jarduera batzuk edo guztiak normaltasunez ez egiteko aukera egotea. Kasu horretan, alde bien adostasunarekin, horren ondorioak adostuko dituzte.

Aurrekoa onesten dela frogatzeko, dokumentuaren bi ale sinatzen dute, goiburuan adierazitako toki eta datan.

GENTZA ALAMILLO UDAETA
Alcalde del Ayuntamiento de Ayala/Aiarako
Udaleko alkatea

JON URRESTI GARCIA
Presidente de Fundación Vital
Fundazioaren Presidentea”.

Bigarrena.- Alkate-udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Vital Fundazioari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatzearen ondorioak izan ditzan.

3.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Aranzadi” Zientzia Elkartearen arteko lankidetz hitzarmena. Hitzarmen horren bidez 2022an Babioko aztarnategia ikertu eta induskatzea sustatzen da, zuzeneko dirulaguntza emanez

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek gaia bozkatu eta aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek alde egin dute) onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak duen interesa udalerrian antolatzen diren kultura-ekimen eta -adierazpenak sustatu eta laguntzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalaren eta “Aranzadi” Zientzia Elkartearen arteko lankidetz hitzarmenaren proposamena, 2022an Babioko aztarnategia ikertu eta induskatzea sustatzeko.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmenak Aiarako Udalak Aranzadi Zientzia Elkartearen alde ematen duen dirulaguntza arautzen duela eta 2021eko udal-aurrekontuan dagoela, 2022rako luzatuta. Udalarentzat hitzarmena sinatzeak ekartzen duen gastua ordaintzeko kreditu nahiko eta egokia duen partida izenduna dago.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Onestea Aiarako Udalaren eta Aranzadi Zientzia Elkartearen arteko hitzarmena, 2022 ekitaldian Babioko aztarnategia ikertu eta induskatzea sustatzeko. Hitzarmenaren bidez Aranzadi Elkarteari 10.000 €-ko zuzeneko dirulaguntza ematen zaio. Hitzarmenak honela dio:

“AIARAKO UDALAREN ETA “ARANZADI” ZIENTZIA ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, 2022AN BABIOKO AZTARNATEGIA IKERTU ETA INDUSKATZEA SUSTATZEKO

Arespalditzan, 2022ko martxoaren (e)(a)n.

BILDUTAKOAK

Alde batetik, **GENTZA ALAMILLO UDAETA JAUNA, AIARAKO UDALEKO** Alkate-Udalburua, Aiarako Udaleko Idazkaria den *Naiara Lazpita Marcos andrearekin batera.*

Bestalde, **JOKIN OTAMENDI AZURMENDI JAUNA, ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN** ordezkari, IFK: G-20059135, helbidea Zorrogagaina 11 (20014, Donostia - Gipuzkoa). Elkarteak 1947an sortu zen, eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 dekretuaren bidez Erakunde Publikoko Elkarte izendatu zen.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-Udalburua dela, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari dela. Toki-erakunde horretarako gaituta dago eta eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena Aranzadi Zientzia Elkartearen (IFK zk. G-20059135) izenean eta hori ordezkatzuz. Haren nortasuna eta ordezkagarritasuna Elkarteak berak igorri duen ziurtagiriaren bidez egiaztatzen da.

Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen dute **LANKIDETZA-HITZARMENA** emateko eta betetzeko. Horretarako

ADIERAZTEN DUTE

LEHENENGOA.- Dagoeneko entitate biek elkarrekin lan egin dute Babioko Aztarnategiari (Aiara) dagokionez, esku-hartze zientifikoak sustatzen.

BIGARRENA.- Aranzadi Zientzia Elkarteak, 1947an sortua, honako oinarri hauek ditu haren estatutuaren barruan: hainbat arrazoiengatik eraginak izan diren natura eta giza arloetan ikerketa zientifiko eta azterlan teknikoak egitea, horiek gizarte orokorrari zabaltzeaz gain, beti Arkeologia, Etnografia eta Ondasun naturala babestu eta zaintzen (Elkartearen Estatutuak, 2002-03-25).

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



HIRUGARRENA.- Aranzadi Zientzia Elkarte irabazi asmorik gabeko elkartea da, eta 2001eko azaroaren 13ko 287/2001 dekretuaren bidez Eusko Jaurlaritzak Erakunde Publikoko Elkarte izendatu zuen.

LAUGARRENA.- Babio eta bertan dagoen Aztarnategia Izoriako Administrazio Batzarrarenak dira, eta bere nahia eta helburuak bertako ondasuna babestu eta zabaltzeko konpromisoa hartzea dira.

BOSGARRENA.- Babion egindako ikerketa zientifikoak Aranzadiko Zientzia Elkarteko lagun eta kideek egin dituzte. Azken urteetan, Aranzadiko kideek eta ikasle-taldeek landako lanak eta azterlan arkeologikoak egin dituzte, auzolan esparruaren barnean.

SEIGARRENA.- Aplikagarria den legedia zehatz mehatz betez, eta Tokiko Entitateek Lankidetzatza-hitzarmenak sinatzeko gaitasuna kontuan izanda, alde biek Lankidetzatza-hitzarmen hau formalizatzen dute, honeko hauek betetzearen eraginpean dagoena

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmenaren xedea

Hitzarmenaren xedea **AIARAKO UDALAREN eta ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAREN** artean elkarlan markoa prestatzea da, **BABIOKO AZTARNATEGIAN** ikerketa zientifikoak egiteko 2022 ekitaldian zehar, metodo eta teknika moderno eta diziplina anitzekoekin. Ikerketa horien emaitzak gizarte osoari era publikoan erakutsiko zaizkio.

BIGARRENA.-

Aiarako Udalak sustatuko duen jardueraren edukia ekitaldi honetan zehar aipatutako Babioko Aztarnategian egiten den ikerketa zientifikoaren jarduerak ekartzen dituen gastuen dirulaguntzan zehazten da.

HIRUGARRENA.-

2022rako lankidetzatza-hitzarmen honi dagokion udal-dirulaguntza 10.000,00 eurokoa da.

Hitzarmenaren xede den jarduera sustatzeko Udalak ematen duen dirulaguntza aipatutako ikerketa zientifikoak ekartzen dituen gastuak ordaintzeko erabiliko da, zehazki, indarrean dagoen araudia jarraikiz, teknikari edo enpresa espezializatuak kontratatuzko gastuak, lanak egiteko, mantenu gastuak, dokumentazioa, bulegoko materialak, eta lanak egiteko gehar diren material teknikoak.

Halaber, Aiarako Udalak lana egin nahi duten pertsona guztiek lo egin eta garbitzeko lekua bilatzeko konpromisoa hartzen du.



LAUGARRENA.-

Dirulaguntza honela ordainduko da:

- Aiarako Udalak emandako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du Hitzarmena sinatzen denean.

Ordainketa egin aurretik Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituela egiaztatzen duen ziurtagiria erantsi beharko da, edo bestea, Udalak dagozkion organismoei informazio hori eskatzeko baimena.

- Gainerako % 20 hitzarmenaren BOSGARREN KLAUSULAn adieraitako dokumentuak aurkeztu eta funtsen helburua behar bezala justifikatzen direnean ordainduko da.

Aiarako Udalak, edozein momentutan, horri buruz egoki irizten dion informazioa eska dezake

BOSGARRENA.-

DIRULAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA Aiarako Udalari aurkeztu beharko zaio, beranduenez **2023ko urtarrilaren 31n**, nahiz eta gastuak dirulaguntza eman den egutegiko urteaamaitu beino lehen, hau da, 2022 urtean, egin behar diren.

Adierazitako epean eskatutako justifikazioa aurkeztu ezean, dirulaguntza baliogabetuko da, eta aurretik ordaindutako zenbatekoak itzultzeko prozedura hasiko da.

Udal-dirulaguntzaren zenbatekoa **JUSTIFIKATZEKO** honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- a) Dirulaguntzarekin egindako jardueretarako jasotako beste dirulaguntza guztien deklarazioa, horiek erakunde publiko zein pribatu batek eman dituela.
- b) Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
- c) Jarduerari lotutako honako dokumentazio hau:
 - Egindako jardueraren memoria.
Jarduera memorian hizkera eta irudi sexistak erabiltzea saihestuko da, eta parte-hartze datuak agertuz gero, sexuaren arabera banatuko dira.
 - Jardueraren Gastuen eta Sarreraren balantzea, beste erakunde publiko eta pribatuek emandako dirulaguntzekin (egotekotan). Gehiegizko finantzaketa gertatzen bada emandako dirulaguntza murriztuko da, dagokion zenbatekoan.
 - Diruz lagundutako arloetan izandako gastu guztiak justifikatzen dituzten dokumentuak:

I.F.K. C.I.F. P0101100F



- Langileak kontratatzeagatiko gastuak: ordainsari eta gizarte segurantzako kopiak, dagozkion ordainketa-dokumentuak erantsiz, eta diruz lagundutako jarduera garatzeko kontratatutako langileei dagokien TC-1 eta TC-2ren kopia.
- Gainerako gastuak: igortzeko baldintza legalak betetzen dituzten faktura justifikatiboak. Transferentziaren bidez ordaintzen denean ordainketaren justifikantzea erantsi behar da; dirutan ordaintzen denean fakturan adierazi beharko da, zigilu edo sinadura originalarekin.

- Lanen aurreikuspenaren eta 2022an zehar egindako lanen kopia.

SEIGARRENA.- Hitzarmenaren iraupena

Hitzarmenaren iraupena 2022ko abenduaren 31n amaitzen da.

ZAZPIGARRENA.-

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEAK egiten dituen iragarki guztietan Aiarako Udalaren laguntza eta babesa jaso beharko du, eta iragarki horietan hizkera eta irudi sexistak erabiltzea saihestuko da.

ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa

AIARAKO UDALAREN aldetik Hitzarmena egiteko eta lortzeko erabiltzen diren datu pertsonalak "Administrazio-espeditentea" izeneko tratamenduan jasoko dira. Tratamendu hori izaera orokorreko udal-jardueraren administrazio-kudeaketarako da. Arduraduna Elexalde auzoko 3. zenbakian dago, 01476 · Arespalditzan (Araba); telefono-zenbakia 94539 90 13 da. Helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus eta IFK: P0101100F. Kasua denean, datu pertsonalak erregistro publiko, Administrazio Publikoko organoei, Notario eta Prokuradore, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxei eta finantza-erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei edota Epaitegi eta Auzitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatzeko, eta datuak baliatzea mugatzeko edo aurka egiteko Udaltzaren zuzendaritzari idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio. Jakinarazpen horrekin batera identitatea egiaztatzen duen dokumentua bidali beharko da. Jakinarazpena egin nahi ezean, Udaltzaren egoitza elektronikoan horretarako dagoen izapidea hasi daiteke. Datuak pertsona interesdunaren edota bere ordezkariaren bidez eskuratu dira, eta baita Administrazio Publikoen bidez ere. Informazio gehiago lortu daiteke webgunera joz: www.aiarakoudala.eus edo telefono-zenbakia deituz: 945 39 90 13.

BEDERATZIGARRENA.-

ARANZADI ZIENTZIA ELAKRTEAK Hitzarmenean ezarritako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian ezartzen den erantzunkizunen eta zehapenen erregimena ezarriko da.

Adostutakoa onesten dela frogatzeko, aldeek lankidetzaren hitzarmenaren bi ale sinatzen dituzte, zuzenketa edo zirriborrorik egin gabe. Hori dokumentua osatzen duten lau folioetan egiten dute. Horrela, dokumentua betetzea agintzen dute bere goiburuan adierazitako toki eta datan.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditzan (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



ALKATE-UDALBURUA.- Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

IDAZKARIA.- Stua.: Naiara Lazpita Marcos.

Alkate-udalburuak eta idazkariak elektronikoki sinatutako dokumentua.

ARANZADI ZIENZIA ELKARTEKO PRESIDENTEA.-

Stua.: Jokin Otamendi Azurmendi.

I. ERANSKINA

Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. DATU EGIATZTAGARRIAK. AURKA EGITEA.

Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.

Aurka egitearen arrazoiketa.

Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Data: _____

Erakundea: _____

Ordez kariaren izena: _____

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Stua.- _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoen izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Aranzadi Zientzia Elkarteari akordio honen berri ematea.”

4.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta “Aiarako Euskalgintza Kontseilua” Elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, 2022 Euskararen Eguna Bateratua egiteko. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaraturako zinegotziek gaia bozkatu eta aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek alde egin dute) onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak arlo guztietan (ludikoa barne) euskararen erabilera eta ezagutza sustatzeko interesa.

IKUSI DA.- Eskualde mailan euskararen eguna ospatzeko Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen arteko lankidetzaz hitzarmena, zeinaren bidez dirulaguntza zuzena ematen den.

IKUSI DA.- Soziosanitarioa, Berdintasuna, Immigrazioa eta Adineko Pertsonak Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Hitzarmen horrek Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkarteari emango dion dirulaguntza zuzena arautzen duela eta 2021eko den eta 2022rako luzatuta dagoen udal-aurrekontuan badagoela aurrekontu-aplikazio izenduna kreditu nahiko eta egokiarekin; hitzarmen hori sinatzeak Udalarentzat dakarren gastua bere gain hartzeko.



Udalbatza Osoak aho batez (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzien artean 10) honako ERABAKI hau hartu du:

Onestea Aiarako Udalaren eta Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren arteko lankidetzahitzarmena, eskualde-mailan euskararen eguna ospatzeko; 2.000 €-ko dirulaguntza zuzena emango da eta testuak honako hau dio:

**“AIARAKO UDALAREN ETA “AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUA”
ELKARTEAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA 2022ko EUSKARAREN EGUN
BATERATUA OSPATZEKO**

Arespalditzan, 2022ko ren (e)(a)n

BILDUTAKOAK

Alde batetik, Aiarako Udaleko Gentza Alamillo Udaeta alkate-udalburu jauna (NAN-zk.: 44.686.448-R), Aiarako Udaleko Naiara Lazpita Marcos andrearen (NAN-zk.: 45.676.325-G) laguntzarekin, bilkuran esandako gutzia ziurtatzen duena.

Bestetik, Aitor Fernández de Pinedo (NAN-zk.: 30.607.335-Q), Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren (elkartearen helbidea: Etxegoien Bidea 8, 01470 Amurrio) presidentea, erakunde horren izenean (IFK-zk.: G01545599).

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoak, Aiarako Udaleko alkate-udalburu gisa, toki erakunde horren izenean eta haren ordezkari gisa, horretarako gaitasuna eta eskumena baitu Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearekin bat etorri.

Bigarrenak, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren izenean eta haren ordezkari gisa, IFK-zk.: G01545599. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu bere izaera eta ordezkaritza, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen presidente izendatzen duen aktaren fotokopiaren bidez (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Bi aldeek elkarri aitortu diote erabateko gaitasun juridikoa eta lankidetzahitzarmen hau egin eta betetzeko lan egiteko erabateko gaitasuna, eta, horretarako,

ADIERAZTEN DUTE

I.- Aiarako Udalak esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko duen udalerriko interes publikoari erantzuteko, besteak beste honako ekimen hauen bidez jardungo du:

- Erabilera-aukerak sortzea aisialdian, kultura-eskaintzan, kirolean...
- Euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea, euskara ikasten ari diren pertsonen zuzenduta, genero-perspektiba integratuz

I.F.K. C.I.F. P0101100F

☒ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - ✉ info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



- Euskara ez dakiten pertsonak ikas dezaten eta erabilera aukerak areagotzeko erraztasun gehiago sortzea
- Egokiak izan daitezkeen bestelako ekimenak

II.- Aiarako Udala udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko asmoz, sustapen hori –beste ekimen batzuen artean– Hitzarmen honen bidez egingo du, zeinak 2021eko Euskararen Egun Bateratua garatzeko (2022ko en (e)(a)n Luiaondon) Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluari emango zaion dirulaguntza arautzen duen. Genero-perspektiba erabiliko da, eta horretarako Udalak formakuntza eta laguntza teknikoak emango ditu.

III.- “Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua” Aiaraldeko eskualde-elkartea da, eta udalerriz guztietan jarduten du, eta beraz, Aiarako herritar guztiei eta Aiarako udalerriko elkartei irekita dago; helburua euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea da.

IV.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluaren fundazioak erakutsi du interes handia duela Aiarako Udalarekin euskararen sustapenarekin lotutako jarduerak antolatzeko lankidetzan aritzeko; horren adierazlea da Luiaondon 2022ko ekainaren 4an egingo den Euskararen Egun Bateratua 2022.

V.- Aplikatzeko legedia zorrotz beteta eta lankidetzaren hitzarmena sinatzeko Tokiko Erakundeak laguntzen dituen gaitasuna kontuan hartuta, bi alderdiek Lankidetzaren hitzarmen hau formalizatuko dute. Honako hauek beteko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak euskara sustatzeko Euskararen Egun Bateratua 2022 ekimena sustatzea da, genero-perspektiba erabiliz. Hori Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkartearen lankidetzaren eta koordinazioaren bidez egingo da.

BIGARRENA.- Hitzarmen honen bidez Aiarako Udalak garatuko duen sustapen jardueran 2.000,00 €-ko dirulaguntza ematean datza, Euskararen Egun Bateratua 2022 jardueraren gastuen zati bat ordaintzeko, zeina Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua elkarteak Luiaondon 2022ko ekainaren 4an antolatuko duen.

HIRUGARRENA.- Aiarako Udalak Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua diruz lagunduko du (2.000,00 euro), Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Euskararen Egun Bateratua 2022 antolatzeak sortzen dituen gastuen zati bat ordain dezan.

LAUGARRENA.- Diruz lagunduko den jarduera egikaritzeko epea 2022ko ekainaren 4a izango da.

BOSGARRENA.- **JUSTIFIKAZIOA.** Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak **2023ko urtarrilaren 31** baino lehen Udaleko Erregistro orokorrean honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- a) Dirulaguntzarekin egindako jardueretarako jasotako beste dirulaguntza guztien deklarazioa, horiek erakunde publiko zein pribatu batek eman dituela.
- b) Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

c) Diruz lagundutako jarduerari lotutako honako dokumentazio hau:

- Euskararen Egun Bateratua 2022ren memoria (egindako jardueraren ebaluazioarekin), eta egin izanaren zinpeko adierazpena.
Memorian hizkera eta irudi sexistak erabiltzea saihestuko da, eta parte-hartze datuak sexuaren arabera banatuko dira.
- Euskararen Egun Bateratua 2022ren memoria ekonomikoa, bere Gastuen eta Sarreraren balantzearekin, faktura eta ordainketa ordainagiri bakoitzarekin.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena onetsi eta sinatu ondoren.

Gainerako zenbatekoa, bidezkoa bada, Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak aurreko puntuan adierazten den justifikazioa adierazitako epean aurkezten duenean ordainduko da.

Aiarako Udalak, edozein momentutan, horri buruz egoki irizten dion informazioa eska dezake

Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak Aiarako Udalaren lankidetzeta eta laguntzak egiten duen publizitatea jaso behar du, hizkera eta irudi sexistak erabili gabe.

ZAZPIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAREN aldetik Hitzarmena egiteko eta lortzeko erabiltzen diren datu pertsonalak "Administrazio-espeditentea" izeneko tratamenduan jasoko dira. Tratamendu hori izaera orokorreko udal-jardueraren administrazio-kudeaketarako da. Arduraduna Elexalde auzoko 3. zenbakian dago, 01476 · Arespalditzan (Araba); telefono-zenbakia 94539 90 13 da. Helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus eta IFK: P0101100F. Kasua denean, datu pertsonalak erregistro publiko, Administrazio Publikoko organoei, Notario eta Prokuradore, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxerak eta finantza-erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei edota Epaitegi eta Auzitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatzeko, eta datuak baliatzea mugatzeko edo aurka egiteko Udaltzaren zuzendaritzari idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio. Jakinarazpen horrekin batera identitatea egiaztatzen duen dokumentua bidali beharko da. Jakinarazpena egin nahi ezean, Udaltzaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapidea hasi daiteke. Datuak pertsona interesdunaren edota bere ordezkariaren bidez eskuratu dira, eta baita Administrazio Publikoen bidez ere. Informazio gehiago lortu daiteke webgunera joz: www.aiarakoudala.eus edo telefono-zenbakia deituz: 945 39 90 13.

ZORTZIGARRENA.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak hitzarmen honetan jasotako betebeharrak betetzen ez baditu, indarrean dagoen dirulaguntzei buruzko araudian aurreikusitako erantzukizun eta zehapen erregimena aplikatuko da.



Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzaz hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 4 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzmaten dute beraz beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEA,

Stua.- Gentza Alamillo Udaeta.

Stua.-Naiara Lazpita Marcos.

Alkate-udalburuak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua..

AIARALDEKO EUSKALGINTZA KONTSEILUKO PRESIDENTEA,

Stua.- Aitor Fernández de Pinedo.

I. ERANSKINA

Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. DATU EGIAZTAGARRIAK. AURKA EGITEA.

Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.*

Aurka egitearen arrazoiketa.

Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Data: _____

I.F.K. C.I.F. P0101100F



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Erakundea: _____

Ordez kariaren izena: _____

Stua.- _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Aiaraldeko Euskalgintza Kontseilua Elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion Hitzarmena sinatzeko.

5.- Onestea, bidezkoa bada, Aiarako Udalaren eta Euskalgintza Kontseiluaren arteko 2022ko lankidetzaz-hitzarmena. Hitzarmen horren bidez zuzeneko dirulaguntza ematen da.

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak duen interesa euskararen erabilera eta jakintza arlo guztietan sustatzeko.

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Hogeitalau Elkartarekin egindako lankidetzaz-hitzarmena, zuzeneko dirulaguntza emateko egin dena.

Ikusi da Euskara eta Hezkuntza Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

AINTZAT HARTU DA.- Hitzarmen honek Aiarako Udalak Hogeitalau Elkarteari emango dion dirulaguntza zuzena arautzen duela eta 2021ekoa den eta 2022rako luzatuta dagoen udal-aurrekontuan badagoela aurrekontu-aplikazio izenduna kreditu nahiko eta egokiarekin; hitzarmen hori sinatzeak Udalarentzat dakarren gastua bere gain hartzeko.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU**:

Aiarako Udalaren eta Hogeitalau Elkartearen arteko 2022ko Lankidetzaz-hitzarmena onestea. Hitzarmen horren bidez 6.000 €-ko zuzeneko dirulaguntza ematen da. Testuak honako hau dio hitzez hitz:

“AIARAKO UDALA ETA HOGEITALAU EUSKARA ELKARTEAREN ARTEKO 2022rako LANKIDETZA-HITZARMENA

Arespalditzan, 2022ko ren (e)(a)n.

BILDUTAKOAK

Alde batetik, GENTZA ALAMILLO UDAETA jauna, Aiarako Udaleko Alkate-Udalburua, NAN zk. 44686448-R, adierazitako entitatearen ordezkari dela, eta Aiarako Udaleko Idazkaria den NAIARA LAZPITA MARCOS andrearekin batera, NAN zk. 45676325-G, ekitaldiaren fede ematen duena.

Bestalde, ANA RIBAGUDA EGURROLA, Hogeitalau Euskara Elkartearen Presidentea, NAN zk. 16273857-T.

ESKU HARTZEN DUTE

Lehenengoa Aiarako Udaleko Alkate-Udalburua dela, toki-erakunde horren izenean eta ordezkari dela. Toki-erakundea horretarako gaituta dago eta eskuduna da, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen arabera.

Bigarrena, Hogeitalau Euskara Elkartearen (IFK zk. G-01326107) izenean eta hori ordezkaturik. Elkarteak berak emandako ziurtagiriaren bidez egiaztatu ditu bere izaera eta ordezkari-tza, Hogeitalau Euskara Elkartearen presidente izendatzen duen aktaren fotokopiatzen bidez (hitzarmen honetan 1. eranskin gisa erantsi da).

Biek elkarren gaitasun juridiko osoa eta jarduteko gaitasun osoa aitortzen dute Lankidetzaz-hitzarmena emateko eta betetzeko. Horretarako

ADIERAZTEN DUTE

I.- Aiarako Udalak esparru guztietan euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko duen udalerriko interes publikoari erantzuteko, besteak beste honako ekimen hauen bidez jardungo du:

- *Erabilera-aukerak sortzea aisialdian, kultura-eskaintzan, kirolean...*
- *Euskararen erabilera sustatzeko kanpainak eta jarduerak antolatzea, euskara ikasten ari diren pertsonen zuzenduta, genero-perspektiba integratuz.*
- *Euskara ez dakiten pertsonen ikas dezaten eta erabilera aukerak areagotzeko erraztasun gehiago sortzea*

I.F.K. C.I.F. P0101100F

☒ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - ✉ info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



- Egokiak izan daitezkeen bestelako ekimenak

II.- Aiarako Udala udalerrian euskararen presentzia eta erabilera sustatzeko asmoz, sustapen hori –beste ekimen batzuen artean– Hitzarmen honen bidez egingo du, zeinak aurtan Hogeitalau Euskara Elkarteari emango zaion urteroko dirulaguntza arautzen duen. Dirulaguntza hori urteroko ekintza-programa eta funtzionamendu-gastuetarako erabiliko da.

III.- Aiaraldeko Hogeitalau Elkarteak Aiaraldeko eskualde-elkartea da, eta udalerrira guztietan jarduten du, eta beraz, Aiarako herritar guztiei eta Aiarako udalerriko elkarteei irekita dago; helburua euskararen ezagutza eta erabilera sustatzea da, eta 2001ean sortu zenetik Aiaran normalizazio linguistikoaren aldeko lan konstantea egiten aritu da.

IV.- Hogeitalau Elkartearen fundazioak erakutsi du interes handia duela Aiarako Udalarekin euskararen sustapenarekin lotutako jarduerak antolatzeke lankidetzan aritzeko; horren adierazle dira sortu zirenetik arrakasta izaten jarraitzen duten programak: Igande Arratsaldeak Familian, Gabonetako Lehiaketa, etab.

V.- Aplikatzeko legedia zorrotz beteta eta Lankidetzak-hitzarmena sinatzeko Tokiko Erakundeak laguntzen dituen gaitasuna kontuan hartuta, bi alderdiek Lankidetzak-hitzarmen hau formalizatuko dute. Honako hauek beteko dituzte:

HIZPAKETAK

LEHENENGOA.- Hitzarmen honen helburua da Aiarako Udalak euskara sustatzeko ekimen eta jarduerak sustatzea dela, genero-perspektiba erabiliz. Hori Hogeitalau Euskara Elkartearekin lankidetzaren eta koordinazioaren bidez egingo da.

BIGARRENA.- Aiarako Udalak 2022an diruz lagunduko duen sustapen-jardueren edukia Hogeitalau Euskara Elkarteari 2022an zehar egiten duen jardueren eta funtzionamendu gastuen (jardueretan antolatzen diren askari eta lunch osasuntzu guztiak barne) arretan eta dirulaguntzan zehazten da, Hitzarmen honen klausuletan ezarritakoaren arabera, beti genero-ikuspegitik (Udalak formakuntza eta laguntza teknikoak emango du horretarako). COVID-19ak sortutako egoera dela-eta, osasun agintaritzek adierazten dituzten jarraipenak aintzat hartu eta aplikatuko dira.

HIRUGARRENA.- 2022 urterako Aiarako Udalak gehienez 6.000,00 euroko dirulaguntza emango dio Hogeitalau Euskara Elkarteari, eta zenbateko hori euskara sustatzeko urteko programa garatzeak ekartzen dituen gastuak eta Hogeitalau Euskara Elkartearen funtzionamendu-gastuak ordaintzeko erabiliko da.

Aiarako Udalak ez duenez sarbiderik urtero Arabako Foru Aldundiak elkarteei euskara sustatzeko egiten dituen deialdiak eta ematen dituen dirulaguntzak ikusteko, Hogeitalau Euskara Elkarteak izango da dagokion dirulaguntza eska beharko duena, urteko sustapen programak ekartzen dituen gastuak ordaintzeko. Hogeitalau Euskara Elkarteari Aiarako Udalarik aitortu beharko dio Arabako Foru Aldundiak urteroko dirulaguntza eman diola.

LAUGARRENA.- Diruz lagunduko diren jarduerak egiteko epea diruz lagundutako urtearen (kasu honetan 2022) denbora-mugetara doituko da.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Hogeitalau Euskara Elkarteak jarduera estrak antolatzea erabakitzen badu, eta Hitzarmenean ezarritako gehiengoko urteko dirulaguntza horiek antolatzeko nahikoa ez bada, elkarteak izango du jarduerak ordaintzeko ardura, eta ez ditu inoiz Aiarako Udalak ordainduko.

BOSGARRENA.- JUSTIFIKAZIOA. Aiaraldeko Euskalgintza Kontseiluak **2023ko urtarrilaren 31** baino lehen Udaleko Erregistro orokorrean honako dokumentazio hau aurkeztu behar du:

- d) Dirulaguntzarekin egindako jardueretarako jasotako beste dirulaguntza guztien deklarazioa, horiek erakunde publiko zein pribatu batek eman dituela.
- e) Foru-ogasunari eta Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria. Hala ere, instrukzio-organoak Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duen ziurtagiria kontsultatu eta egiaztatuko du elkarreragingarritasunarekin, eskatzaileak edo onuradunak aurka egon ezean. Aurka badaude, I. ERANSKINA BETE BEHARKO DU eta dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.
- f) Diruz lagundutako jarduerari lotutako honako dokumentazio hau:
- Diruz lagundutako ekitaldien Gastuen eta Sarrereren Balantzea.
 - Diruz lagundutako ekitaldiko Jardueren Memoria (egindako jarduera bakoitzaren ebaluazioarekin eta egin izanaren zinpeko adierazpena) Memorian ez da hizkera ezta irudi sexistarik erabiliko, eta parte-hartzearen datuak sexuaren arabera banatuko dira
 - Amaitutako urtearen memoria ekonomikoa (jardueren gastua + funtzionamenduaren gastua), gastu eta sarrerekin, dagozkion ordainagiri eta ordainketa dokumentuak erantsiz.

SEIGARRENA.- Dirulaguntza hau ordaintzeko modua honako hau izango da: Aiarako Udalak adostutako dirulaguntzaren % 80 ordainduko du hitzarmena onetsi eta sinatu ondoren.

Gainerako zenbatekoa, bidezkoa bada, Hogeitalau Euskara Kontseiluak aurreko puntuan adierazten den justifikazioa adierazitako epean aurkezten duenean ordainduko da.

Aiarako Udalak, edozein momentutan, horri buruz egoki irizten dion informazioa eska dezake

Hogeitalau Euskara Elkarteak Aiarako Udalaren lankidetzat eta laguntzak egiten duen publikizitatea jaso behar du, hizkera eta irudi sexistak erabili gabe.

ZAZPIGARRENA.- Hogeitalau Euskara Elkarteak dagozkion eskabidea eta proiektua aurkeztuko ditu Udalean urteko ekitaldidaren hasieran.

ZORTZIGARRENA.- Datuen babesa. AIARAKO UDALAREN aldetik Hitzarmena egiteko eta lortzeko erabiltzen diren datu pertsonalak "Administrazio-espeditentea" izeneko tratamenduan jasoko dira. Tratamendu hori izaera orokorreko udal-jardueraren administrazio-kudeaketarako da. Arduraduna Elexalde auzoko 3. zenbakian dago, 01476 · Arespalditzan (Araba); telefono-zenbakia 94539 90 13 da. Helbide elektronikoa: info@aiarakoudala.eus eta IFK: P0101100F. Kasua denean, datu pertsonalak erregistro publiko, Administrazio Publikoko organoei, Notario eta Prokuradore, Estatuko Segurtasun Indar eta Kidegoei, bankuei, aurrezki-kutxai eta finantza-

I.F.K. C.I.F. P0101100F

☒ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditzan (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - ✉ info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



erakundeei, aseguru-erakundeei, osasun-erakundeei edota Epaitegi eta Auzitegiei. Interesdunak eskubidea du bere datuetan sartzeko, horiek zuzentzeko eta ezabatzeko, eta datuak baliatzea mugatzeko edo aurka egiteko Udalbatzaren zuzendaritzari idatzizko jakinarazpena bidali beharko dio. Jakinarazpen horrekin batera identitatea egiaztatzen duen dokumentua bidali beharko da. Jakinarazpena egin nahi ezean, Udalbatzaren egoitza elektronikoa horretarako dagoen izapidea hasi daiteke. Datuak pertsona interesdunaren edota bere ordezkariaren bidez eskuratu dira, eta baita Administrazio Publikoen bidez ere. Informazio gehiago lortu daiteke webgunera joz: www.aiarakoudala.eus edo telefono-zenbakia deituz: 945 39 90 13.

BEDERATZIGARRENA.- “Hogeitalau Euskara Elkarteak” Hitzarmenean ezarritako betebeharrak ez baditu betetzen, indarrean dagoen dirulaguntzen araudian ezartzen den erantzukizunen eta zehapenen erregimena ezarriko da.

Eta adostutakoarekin bat datozela frogatzeko, aldeek lankidetzeta-hitzarmen honen hiru aleak sinatu dituzte, zuzenketarik edo zirriborrorik gabe, dokumentu hau osatzen duten 3 orrialdeetako bakoitzean, eta hitzematzen dute berau beteko dutela dokumentu honen goiburuan agertzen den lekuan eta egunean.

ALKATE-UDALBURUA,

HOGEITALAU EUSKARA
ELKARTEAREN PRESIDENTEA ,

Nire aurrean, IDAZKARIA,

Alkate-udalburuak eta idazkari kontu-hartzaileak elektronikoki sinatutako dokumentua.

I. ERANSKINA

Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. DATU EGIAZTAGARRIAK. AURKA EGITEA.

Udal honek behar beste kontsultatu eta egiaztatuko ditu Gizarte-segurantzari egin beharreko ordainketak eta zerga-betebeharrak egunean dituztela egiaztatzen duten ziurtagiriak. Hori eskura dauden datuen bitartekaritzarako sistemarekin egingo da. Beheko sinatzaileak kontsulta eta egiaztapen horien aurka egin dezake, eta hori eginez gero dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu Laugarren klausulan adierazten diren frogagiriekin batera.

Egiaztapen horren aurka egonez gero, jar ezazu X bat:

- Udalak Ogasunaren (AFA) ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.
- Udalak Gizarte-segurantzaren ordainketak egunean ditudala egiaztatzen duen Ziurtagiria kontsultatzeari aurka egiten diot.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

☒ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - ✉ info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aurka egitearen arrazoiketa.

Aurka eginez gero, aurka egiteko arrazoiak justifikatu behar dituzu (3/2018 Lege Organikoaren 18. artikulua).

Data: _____

Erakundea: _____

Ordezariaren izena: _____

Stua.- _____

Datu pertsonalen tratamendua legitimatuta dago interes publikoaren izenean edo Aiarako Udalarari emandako botere publikoaren izenean egindako misio bat betetzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 6.1 e) artikuluan, eta gainerako legeria aplikagarrian aurreikusitakoaren arabera.

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Hogeitalau Elkarteari akordio honen berri ematea, dagokion hitzarmena sinatzeko.”

6.- Onestea, bidezkoa bada, Udalsarea 2030 sareari atxikitzeko hitzarmena

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

Hori dela bide,



IKUSI DA.- Aiarako Udalak Euskadin tokiko ekintza jasangarria sustatzeko kooperazio eta lankidetzaren markoaren parte izateko duen interesa. Hori honen bidez egingo du: Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarea, Udalsarea 2030.

IKUSI DA.- Honako honi atxikitzea: Tokiko ekintza jasangarria eta tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 – Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarearen berriztapena.

IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU:**

LEHENENGOA.- Honako honi atxikitzea onestea: Tokiko Ekintza Jasangarria eta Tokiko 2030 Agenda Euskadin bultzatzeko akordioa. Udalsarea 2030 – Udalerrri Jasangarrien Euskal Sarearen berriztapena.

**“TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN
BULTZATZEKO AKORDIOA. UDALSAREA 2030 – UDALERRI
JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA**

AURREKARIAK

Lehenengoa.-

Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiak “Gure mundua eraldatu: garapen jasangarrirako 2030 Agenda” dokumentua onartu zuen 2015ean, hau da, “pertsonek, planetaren eta oparotasunaren aldeko ekintza-plan bat”. 2030 Agendak zuzenean eskatzen die tokiko gobernuei agenda modu egokian ezarri dezatela eta beraren Garapen Jasangarriaren Helburuak (GJH) eta helmugak bete ditzatela. Tokiko eskumenei estu lotuta, 2030 Agendak exijitzen du tokiko politika eta kudeaketa bestelako modu batean egin daitezela, legegintzaldia bera gainditzen duen epe luzerako ikuspegi estrategiko batez, ambizioz eta eraldatzeko nahiaz jokatzuz, ikuspegi hori ekonomia, gizarte eta ingurumenaren alor guztietan hedatuz. Ahalbidetzen du, gainera, udal politika eta kudeaketaren ahaleginak eta baliabideak arrazionalizatzea, helburuen arabera lan eginez eta emaitzak ebaluatzeko eskatuz, herritarren parte hantza sustatuz eta gizarteari kontuak ematearen alde arituz.

Covid-19aren osteko susperraldi eta eraldaketara zuzendutako tokiko gobernantza berria 2030 Agendan oinarritu beharko litzateke etc hasieratik beretik GJHetan eta dagozkien helmugetan inspiratu, tokiko gobernantza-sistema integral adimendunak egituratzeko, horien bidez 17 GJHen betearazpena katalizatuzeko 2021-2030 hamarkadan, hots, Nazio Batuen Erakundeak “Ekintzaren Hamarkada” deitzen dion garaian.

2015ean Parisko Akordioa onartu zen, eta honek ere hirien, eskualdeen eta tokiko administrazioen garrantzia aitortzen du, klima-aldaketari aurre egiteko eta beraren ondorioetara egokitzeko hartuta duten konpromisoari lotuta, eta beraren implementazioa

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



funtsezkoa da Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzeko. Beste alde batetik, bi mugarri horiek dira 2019an onartutako Europako Itun Berdearen ardatzak, agenda politikoaren norabidea hamarkada honetarako markatzen ari baitira.

Bigarrena.-

2018ko apirilaren 11n, Eusko jaurlaritzak Euskadi Basque Country 2030 Agenda onartu zuen, Gobernu Kontseiluan, eta hortik abiatuta hainbat ekimen hedatu dira Euskadiko eragile sozial, ekonomiko eta administratiboak inplikatzen. 2021eko ekainaren 29an, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren Lehenetsun Euskal Programa onartu zuen, Gobernu Kontseiluan. Beraren eginkizuna da kontratu sozialaren kultura bultzatzea, Garapen Jasangarriaren Helburuen ikuspegi eraldatzaileari lotuta. 2021eko uztailaren 6an, Eusko jaurlaritzak Euskadiko Gizarte Trantsizioa eta 2030 Agendako Eragile Anitzeko Foroa sortu zuen, hau da, lankidetzaren eta aholkularitza-organoren bat, helburutzat duena 2030 Agenda Euskadiko politika publikoetan harmonizatzen eta garatzen laguntzea. Foroaren burua Lehendakaria da.

Hirugarrena.-

Udalsarea 21 – Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea 2020ko abenduaren 20ko eraketa-hitzarmena sinatzearen bidez sortu zen. Sarea euskal Administrazio publikoaren arteko koordinazio-foro bat izateko asmoarekin sortu zen, jasangarritasuna udal mailan sustatzeko, Tokiko Agenda 21 euskal udalerrietan ezartzeko bidean aurrera eginez, EAEko Ingurumen Esparru Programarekin bat etorritik. 2010eko martxoaren 30eko bigarren hitzarmen arautzailearen ostean, 2016ko apirilaren 27an EAEko tokiko jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzea Akordioa sinatu zen, 191 udalerriren, Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta beste erakunde publiko batzuen atxikimendurekin. 2019an, sareak izen berria hartu zuen: Udalsarea 2030 – Udalerrien Jasangarriaren Euskal Sarea, bere kideen ibilbidearekin bat etorritik eta bere helburuak 2030 Agendaren jarraibidekin lerrotuz.

Laugarrena.-

Tokiko esparruan, Udalsarea 2030en baitan sare moduan eta maila anitzeko lankidetzaz ia hogeita urtez egindako lanak Tokiko Agenda 21 finkatzen du tokiko jasangarritasun- politikak Euskadin planifikatzeko eta kudeatzeko tresna gisa, euskal udalerrien askotan. Hala eta guztiz ere, oraingo koiunturak Tokiko 2030 Agenda berriekin bat egitera edo horietara trantsizioak egitera bultzatzen du. Tokiko gobernantzen euskal eredu berri horrek ahalbidetuko du inplikazio politikoa eta garapen jasangarriarekiko konpromisoa biziberritzea, sailen arteko zeharkakotasuna eta izaera estrategikoagoa duen lan-plan bat indartzea, gizartearen parte-hartzerako hizkuntza berri bat sortzea, komunikazio eraginkorragoa lortzea eta finantziatorako aukerak areagotzea. Gainera, tokiko euskal administrazioaren ahalegin kolektiboak agerian uzten du honek jasangarritasunari egiten dion ekarpena, eta baita Euskadi Garapen Jasangarriaren Helburuen lokalizazioaren nazioarteko erreferente gisa kokatzeari egiten dion ekarpena ere.

Adierazitako aurrekariarekin bat etorritik, eta Euskadiko toki jasangarritasunaren aldeko konpromisoa berritzen duen esparru arautzaile berri bat ezarri behar denez, akordio honi atxikitzen zaizkio erakundeek onartzen dituzten hizpaketa hauek ezartzen dira:

HIZPAKETAK



LEHENENGOA. XEDEA

Akordio honen xedea da tokiko jasangarritasuna Udalsarea 2030 – Udalerri Jasangarrien Euskal Sarearen bidez Euskadin bultzatzera zuzendutako kooperazio- eta lankidetzaz-esparrua ezartzea.

Horri begira, Tokiko 2030 Agendaren aldeko konpromisoaren eta beraren ezarpen, garapen eta jarraipenaren alde egiten duten Administrazio publikoen arteko harremanak arautzen dira, helburu honekin: 2030 Agendaren bidez tokiko ekintza jasangarria sustatzea dokumentu honi atxikitzen zaizkion tokiko euskal erakundeetan (Udalak eta Eskualde-erakundeak).

Sareak izaera parte-hartzaile eta irekia du; izan ere, kide berrien borondatezko atxikimendua sustatzen du eta izaera dinamikoa ematen dio, bere partaide guztiak jasangarritasunaren alde inplikatzearen bidez.

BIGARRENA. UDALSAREA 2030 SAREAREN ANTOLAMENDU-EGITURA ETA ORGANOEN EGINKIZUNAK

Udalsarea 2030 Sarearen antolamendu-egitura honela osatuko da:

1.- Lehendakaritza:

Lehendakaritza“ I hobeko Administrazio Kontseiluaren buruaren eskuetan egongo ga eta eginkizun hauek beteko ditu:

- Sarea gidatzea, plan estrategikoak eta kudeaketa-planak onartuz.
- Interesatutako erakundeek Sareari egindako atxikimendua baliozkotzea.
- Baliabide nahikoak ematea sarearen Idazkaritza Teknikoak bere eginkizunak garatu ditzan eta berari esleitutako plan estrategikoen eta kudeaketa-planen helburu espezifikokoak bete ditzan.

2.- Idazkaritza Teknikoa:

Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikoa Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, I hobe SARI dagokio. Honako eginkizun hauek beteko ditu:

- Sarearen kudeaketatik eratorritako zeregin administratiboak garatzea.
- Sareko organoen topaketen urteko dinamizazioa eta kudeaketa, eta baita lantalde tematikoen dinamizazioa ere.
- 2030 Agendaren eremuko beste ekimen eta proiektu batzuei buruzko ezagutza eta esperientziak ekartzea, Euskadi mailan, haien koordinazioa bermatzeko.
- Proiektu berritzaileen garapena modu proaktiboan sustatzea, interesekoak diren eremuetan.
- Sarearen zerbitzuak diseinatzea, kudeatzea eta bazkideen beharretara egokitzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren. Behatokia mantenduz, 1. eranskinean ezarritakoaren arabera, eta baita tokiko politika publikoak ebaluatzen eta tokiko jasangarritasunaren adierazleak kalkulatzeko programak ere mantenduz. Bi zerbitzu horiek izaera estrategikoa dute eta bat datoz Eusko Jaurlaritzako

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saílaren plangintza estrategikoaren tresnekin eta araudiarekin.

- *e-mugi aplikazio informatikoaren erabilera espezifikorako lizentzia transferiezin eta ez-esklusibo bat ematea hori idatziz eskatzen duten Udal eta Toki-erakundeei, horren bidez euren Tokiko 2030 Agendaren prozesuak, jasangarritasun-politikak eta ekintza-plan jasangarriak kudeatu ditzaten Udalsarea 2030en baitan, betiere Sarearen partaide izateari-lotuta. Ihebek akordio honen 1. eranskinean ezartzen diren baldintzen arabera emango du lizentzia.*
- *Sarea teknikoki ordezkatzeko tokiko ekintza jasangarriarekin lotutako foro profesional edo teknikoetan.*
- *Aliantzak eta lankidetzak indartzea eta hitzartzea sare zein erakundeekin, esperientziak trukatzeko, Sarearen jarduna optimizatzeko eta bere kideen beharrak betetzen laguntzeko.*
- *Sarearen kudeaketa eta diamizazioari lotutako gastuak ordaintzea, bertan ezarritako eta Ihoberi egotzitako helburuak betetzeko xedez.*

3.- Batzorde Teknikoa:

Batzorde Teknikoa lantalde iraunkor gisa eratzen da, eta Akordio honi atxikitako erakunde bakoitzak gehienez 2 ordezkari izan ditzake bertan. Sarearen jarduerak eta zerbitzuak komunikatzeko foro nagusia da, baina horrek ez du baztertzen Batzordeak berak lantaldeak eratzeko erabakia hartzea, bere operatibotasuna bermatzeko.

Batzorde Teknikoaren eginkizunak honako hauek dira:

- *Esperientzien eta informazio baliagarriaren trukea sustatzea.*
- *Udal eta kideen profil desberdinen arteko komunikaziaoa sustatzea.*
- *Lantalde espezifikoa eratzea Sarearen material eta baliabide komunak garatzeko.*
- *Sarearen plan estrategikoen eta kudeaketa-planen diseinuan parte hartzea.*

4.- Tokiko Ekintza Koordinatzeko eta Sustatzeko Batzordea:

Tokiko Ekintza Koordinatzeko eta Sustatzeko Batzordearen partaideak udalez gaindiko izaera duten (Eskualde-erakundeak ez direnak) eta akordio honi atxikitzen zaizkion euskal sektore publikoko erakundeen ordezkariak izango dira.

Batzordea urtean bitan bilduka da, honako eginkizun hauek betetzeko:

- *Bere eskumeneoak diren tokiko jasangarritasunaren arloko proiektu, ekimen edo sostengu-programei buruzko informazioa konpartitzea.*
- *Alderdi bakoitzaren tokiko ekintza bultzatzeko politikak koordinatzeko lerroak proposatzea.*
- *Toki-erakundeei zuzendutako ekimen sektorialen lidergoa zehaztea eta*

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



bereganatzea, Sarearen jardunaren eta tokiko ekintzaren urteko plangintza hobetzeko.

HIRUGARRENA. ERAKUNDEEN ATXIKIMENDUA

Akordio honi Euskadiko Udalak eta Eskualde erakundeak atxiki ahal izango zaizkio. Halaber, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ere atxiki ahal izango zaizkio, eta baita Euskadiko Administrazio Orokorraren beste Sail batzuk eta 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzearekin konprometituta dauden euskal sektore publikoko erakundeak ere.

Atxikimendurako eskaera banakako konpromiso bat sinatzearen bidez formalizatuko da, akordio honen) II-A (Udalak), II-B (Eskualde-erakundeak) eta II-C (Euskadiko Administrazio Orokorraren Sailak eta euskal sektore publikoko erakundeak) Eranskinen arabera. Atxikimendurako eskaera Sareko lehendakaritzak baliozkotuko du.

LAUGARRENA. ATXIKITAKO ERAKUNDEEN KONPROMISOAK ETA EGINKIZUNAK

Akordio honi atxikitzen zaizkion erakunde guztiek jarraian zehazten diren konpromisoak bereganatu beharko dituzte eta adierazitako eginkizunak bete.

a) Udalen konpromisoak eta eginkizunak:

- 2030 Agenda bide-orri gisa erabiltzea tokiko plangintza eta ekintzarako, eta GJHen araberako ikuspegia udal politika eta kudeaketan txertatzea.
- Aurrera egitea, modu gradualean, Tokiko 2030 Agendaren prozesuen inplementazioan, Udal bakoitzaren konpromiso politiko gisa eta etengabeko hobekuntzarako konpromiso gisa, udalerriak eta/edo eskualdeak garapen jasangarriari egiten dion ekarpen bezala.
- Kargudun politiko bat eta ordezkari bat izendatzea Sarerako ordezkari gisa, eta baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.
- Sarearen jardueraren eta foroetan modu aktiboan parte hartzea edo ordezkaritza dagokion Eskualde-erakundeari delegatzea, Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa- planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzeko.
- Kontaktuak, informazioa, ezagutza, materiala eta esperientziak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen liburutegi birtuala zabaltzeko eta beraren adimen kolektiboa handitzeko. Ihobek horren banaketa kudeatuko du.
- Kolaboratzea eta Sarearen eskari eta beharrei erantzutea, eta, zehazki, udal politika eta antolaketari buruzko bi urtetik behingo inkesta betetzea, Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokitako.



b) Eskualde-erakundeen konpromisoak eta eginkizunak:

- Tokiko 2030 Agenden inguruko sentsibilizazio-, informazio- eta prestakuntza-ekintzak gauzatzea eskualdeko udalen artean, GJHen ikuspegia udal politika eta kudeaketan txertatu dezaten.
- Tokiko 2030 Agendak dinamizatzen laguntzea eta/edo eskualde-ikuspegia duten 2030 Agendak diseinatzea.
- Kargudun politiko bat eta ordezeko pertsona bat izendatzea Sareko ordezkariak izateko, eta baita interlokuzio teknikorako pertsona bat ere izendatzea.
- Sarearen jarduera eta foroetan modu aktiboan parte hartzea; eta dimentsio txikiagokoak diren edo baliabide gutxiago dituzten udalerriak beharrezkotzat jotzen den foroetan ordezkatzeta.
- Sarearen plan estrategikoetan eta kudeaketa-planetan ezartzen diren helburu espezifikoak betetzen laguntzea.
- Informazioa, ezagutza, materiala eta esperientzia praktikoak modu proaktiboan ekartzea eta konpartitzea, Sarearen adimen kolektiboa handitzeko, eskualde-ikuspegia bereziki ekarriz.
- Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikorekin batera, orientazioa eta aholkularitza eskaintzea GJHen ikuspegia udalerriek edo eskualdeek garatuko dituzten ekimen eta proiektuetan txertatzeko, horien diseinu-fasean.
- Tokiko jasagarritasunaren inguruan Eskualdearen barruan modu bateratuan abiatzen diren lan-ildoak sostengatzea, bultzatzea eta koordinatzea.
- Idazkaritza Teknikotik sustatutako lurralde-topaketetako parte-hartzea dinamizatea.

c) Euskal sektore publikoko udalez gaingiko beste erakunde batzuen konpromisoak eta eginkizunak:

- Modu iraunkorrean kolaboratzea eta informazioaren eta ezagutzaren trukea sustatzea, tokiko jasagarritasunaren arloko jarduerak Euskadin hobeto koordinatzeko.
- Erakunde bakoitzak dituen eta Sarearentzat interesgarriak diren beste proiektu, ekimen edo sostengu- programa batzuei buruzko informazioa ekartzea.
- Foro eta Iantalde esanguratsuenetan modu aktiboan parte hartzea (bai Ingurumen sailetatik eta bai Basque Country 2030 Agendari lotutakoetatik).
- Erakundeen eskumenekoak diren edo erakundeak gizarte-, ekonomia- eta

I.F.K. C.I.F. P0101100F



ingurumen-arloetan erreferente diren gaiei buruzko ezagutza eta esperientzia ekartzea.

- Tokiko 2030 Agendaren arloan egiten diren aurrerapenen komunikazioan/dibulgazioan laguntzea, eta Sarearen komunikazio- eta dibulgazio-jarduera propioak sortzea eta sustatzea.
- Sarearen jarduera orokorra finantzatzen laguntzea, beraren kide izateagatik urtean 5.000 euroko kuota ordainduz.
- Atxikitako erakunde bakoitzak proposatu eta gidatzen dituen lantaldeak edo proiektu espezifiko sektorialak sostengatzera zuzendutako laguntza teknikoak kudeatu eta kontratatuzetik eratorritako kostua ordaintzea.

BOSGARRENA. INDARRALDIA

Akordio hau beraren lehenengo atxikimendua balioztatzen den egunean sartuko da indarrean. Akordioak 4 urteko indarraldia izango du, egun horretatik aurrera.

SEIGARRENA. KOMUNIKAZIO PUBLIKOA

Akordio honekin zerkiudia duen informazioaren komunikazio publikoak sarearen logoak eta berari buruzko erreferentziak txertatu beharko ditu, estilo-eskuliburuak xedatzen duenarekin bat etorritik. Beraren hedakuntzaren aurretik, horren berri eman beharko zaio Sarearen Idazkaritza Teknikoari.

I. ERANSKINA: EUSKADIKO TOKIKO GARAPEN JASANGARRIREN BEHATOKIA ETA E-MUGI PLATAFORMA

Ihobek, Euskadiko Tokiko Garapen jasangarriren Behatokia eta e-mugi plataforma ustiatzeko eskubideen jabe eta titularra den aldetik, lizentzia transferiezin eta ez-esklusibo bat emango die hori idatziz eskatzen duten Udal eta Toki erakundeei, e-mugi aplikazio informatikoaren erabilera espezifikorako, euren Tokiko 2030 agendaren prozesuak eta euren jasangarritasun-politikak eta ekintza- plan jasangarriak kudeatzeko, Udalsarea 2030en baitan, betiere Sarearen partaide izateari lotuta.

Eskaera Eskualde-erakunde batetik datorrenean, baldintza bat bete beharko da lizentzia eskuratzeko, hau da, Erakundeak zerbitzua ematen dien udal gehienek Udalsarea 2030en partaide izan behar dute eta modu egiaztatuan onartu behar dute.

Halaber, e-mugi plataformazi baliatuz, Ihobek tokiko izaera duen informazioa eskainiko die Sarearen kide diren toki-erakundeei, urtean behin edo bi urtetik behin, funtsezko informazio-iturritzat jotzen diren erakundi hornitzaileetatik hartuta (hala nola Eusko Jaurlaritzako sailak, Foru Aldundiak, Eustat, EEE, URA, Iberdrola, Gas Natural, REE, CNMC); horren helburua da tokiko garapen jasangariaren adierazleak kalkulatzeko eta udalen berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioak egiten laguntzea, Udalsarea



2030en baitan indarrean dagoen garapen Jasangarriaren tokiko Adierazleen Sistemaren arabera.

Ihobek, Euskadiko Garapen Jasangarriaren Tokiko Behatoki gisa, udalak edo -hala dagokionean- eskualde-erakundeak e-mugin duen informazioa ustiatu ahal izango du, edo behatokiaren bidez bildutakoa tokiko euskal erakundeen rola agerian uzteko, sektore, erkidego, lurralde eta estatu mailako politikari egiten dieten ekarpenaren balioa nabarmentzeko, Udalsarea 2030 tokiko jasangarriaren alorrean sare gisa posizionatzeko, bai estatuan eta bai nazioartean, eta Sarearen xede eta helburuak betetzen laguntzeko.

Toki-erakundeek (udalak eta eskualde-erakundeak) aitortzen dituzten Ihobek e-mugi plataforma informatikoaz dituen "copyright" eskubideak; aitortzen dute, halaber, bere erabilera partikularerako soilik lagatzen zaiela, eta konpromiso hau hartzen dute: beraren erabilera partziala edo osoa ezein modutan ez lagatzea eta hitzarmen honen arabera beraren gainean duen ezein eskubide ez transmititzea, ezta dibulgatzea, argitaratzea edo beste norbaiten esku beste edozein modutan jartzea ere, haren erabilërarako aurretik izendatu diren pertsonak salbuetsita. Gainera, Udalsarea 2030en Idazkaritza Teknikoa eta Euskadiko Tokiko Garapen Jasangarriaren Behatokia den aldetik, honako hau baimentzen diote lhoberi:

- *garapen jasangarriaren tokiko adierazleen kalkulkuarekin lotutako tokiko informazioa edo kasuan kasuko erakundearen informazioa eskatzea, urtero, udalez gaindiko informazio-iturri diren erakunde hornitzaileei (honako hauek barne sartuta: energia-kontsumoak, CNMC-Merkatuen eta Lehiaren Batzorde Nazionalaren hornidura-puntuaren informazio sistemaren (SIPS) datuetarako sarbidea, eta Red Eléctrica de España SAU, REEren neurri elektrikoaren sistemarako (SIMEL) sarbidea), informazio hori Behatokiaren e-mugi plataformara iraultzeko, toki-erakundeei informazio hori eskuratzen laguntzeko.*
- *Sarearen jardunaren esparruan jasotako tokiko datuen tratamendutik ateratako informazioa hedatzea, Udalsarea 2030en euskarritan eta komunikazio-elementutan, hala nola argitalpenak, webgunea, ekitaldiak, etab., tokiko administrazioen gardentasunaren alde egiteko.*
- *Udalsarea 2030en kide diren udalez gaindiko erakundeei —Foru Aldundiak, URA, EEE, etab.— politika publikoak ebaluatzeko programetatik eta garapen jasangarriaren tokiko adierazleen kalkulutik ondorioztatutako lurralde eta/edo sektore mailako datuak eskuratzea.*

Aurretik datorren guztiari indarrean dagoen Jabetza Intelektualari buruzko Legearen testu bategina aplikatzen zaio.

II-A ERANSKINA (Udalak)

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B°La Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO –UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA– AKORDIOAREN ALDEKO ATXIKIMENDUA

.....(e)ko Udalak NBEk promulgatutako 2030 Agendaren Garapen Jasangarriaren Helburuak modu aktiboan betetzen laguntzeko konpromisoa hartzen du, bere udal politika eta kudeaketa egokitzearen eta eraldatzearen bitartez.

Konpromiso hau gauzatzeko modua da tokiko gobernantza-eredu integral eta adimendun bat ezartzea, jasangarritasun globalaren aldeko hobekuntza etengabeko prozesu gradual baten bitartez, Tokiko 2030 Agendara iristeko xedez.

Eta ahalegin horretan, Udalak azpimarratzen ditu Udalsarea 2030en partaide izatearen onurak, horren helburua tokiko ekintza jasangarria sustatzea baita, Tokiko 2030 Agendaren esparruan, prozesu horiek teknikoki sostengatzeaz batera.

Horiek horrela,(e)ko Udalak ADIERAZTEN DU:

Atxikitzen zaiola “TOKIKO EKINTZA JASANGARRIA ETA TOKIKO 2030 AGENDA EUSKADIN BULTZATZEKO —UDALSAREA 2030, UDALERRI JASANGARRIEN EUSKAL SAREAREN BERRIZTAPENA- AKORDIOARI”, hortik eratortzen diren konpromisoak bereganatuz.

Horretarako, pertsona hauek izendatzen ditu:

Maila politikoan:

(Izen-abizenak)

(Izen-abizenak)

Maila teknikoan:

(Izen-abizenak)

(Izen-abizenak)

20.....(e)ko,(a)ren(e)an
Stua.:
.....(e)ko Udala

Datuen babesari buruzko oinarritzko informazioa



Atxikimendurako eskaeran ageri diren datu pertsonalak Arlo Teknikoa izeneko tratamendu-jardueran tratatu eta txertatuko dira.

Arduraduna: Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe SA.

Helburua: Tokiko 2030 Agenda eta tokiko ekintza jasangarria Euskadin bultzatzeko akordioari atxikitzeko eskaeren kudeaketa.

Legitimazioa: eskatzailearen baimena.

Hartzaileak: datuak atxikitako erakundeen artean konpartituko dira, Udalsarea 2030en baitan, betiere beharrezkoa denean kideen arteko harremanak hobetzeko, sarearen proiektuak, ekitaldiak eta jarduerak garatzeko eta beraren adimen kolektiboa handitzeko, tokiko garapen jasangarriaren inguruan.

Eskubideak: baduzu datuak ikusteko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea, eta baita informazio erantsian jasotako beste eskubide batzuk ere.

Informazio erantsia: Datuen Babesari buruzko informazio erantsi eta zehatza kontsulta dezakezu gure webgunean:

<http://www.udalsarea21.net/Paginas/Ficha.aspx?IdMenu=09e40489-90d3-4162-8e77-7e322eae4bb4&Idioma=es-ES>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra

<http://eur-lex.europa.eu/legal-content/ES/TXT/HTML/?uri=CELEX:32016R0679&from=ES>

3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa

BIGARRENA.- Akordioa Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoari, Ihobe Sari jakinaraztea, ezagut dezan eta beharrezko ondorioak izan ditzan.

7.- Onestea, bidezkoa bada, Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena, udalerrian kudeaketa integralerako sistema informatikoa erabiltzeko.

Udalbatzari jakinarazi zaio gai horri dagokion Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko irizpena.

Ez da horren gaineko iruzkinik egin, beraz bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez gaia onetsi dute.

Hori dela bide,

IKUSI DA.- Aiarako Udalak Arabako Foru Aldundiak ematen dituen programa informatikoa erabiltzen jarraitzeko interesa duela (sarbidea, espedienteak kudeatzea, erroldako eta errentako programak, egoitze elektronikoa...).

IKUSI DA.- Arabako Foru Aldundiak igorritako hitzarmen proposamena, Udalak adierazitako programak erabiltzeko eta Tokiko administrazioa modernizatzeko prozesuan parte hartzeko oinarrizko baldintzak ezartzeko.



IKUSI DA.- Hirigintza, Obrak eta Zerbitzuak eta Ingurumena Informazio Batzordearen 2022ko maiatzaren 10eko aldeko Irizpena.

Osoko Bilkurak, bertaratutako zinegotziek (Udalbatza osatzen duten 11 zinegotzietatik 10ek) aho batez onetsi dutela, **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Onestea Arabako Foru Aldundiarekin hitzarmena, udalerrian kudeaketa integralerako sistema informatikoa erabiltzeko. Testuak honela dio:

BILDU DIRA

Alde batetik, Irma Basterra Ugarriza, Arabako Foru Aldundiko Lurralde Orearen Saileko diputatua, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, Foru Gobernu Kontseiluaren xxaren xx(e)ko xx/2022 Erabakiaren arabera.

Bestetik, xxx, xx(e)ko Udaleko alkate-lehendakaria, hitzarmen hau sinatzeko ahalmena duena, xxx(e)ko Udalbatzaren 2022ko xxxaren xx(e)ko Erabakiaren arabera.

Alderdiak hitzarmen hau sinatzeko behar den gaitasuna onartzen diote elkarri eta honako hau,

ADIERAZTEN DUTE

I. Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 36.1g) artikuluan ezartzen du Arabako Foru Aldundiaren eskumena dela administrazio elektronikoko zerbitzuak ematea 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerriei.

Gainera, 36.1.b) artikuluan, udalei laguntza emateko eta haiekin lankidetzan aritzeko berezko eskumena esleitzen zaie aldundiei, bereziki gaitasun ekonomiko eta kudeaketa gaitasun txikiena dutenekin.

II. Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean jasotako definizioaren arabera, hitzarmenak dira ondorio juridikodun akordio batzuk, administrazio publikoek sinatuak, xede komun bat lortze aldera.

III. Bestalde, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak zenbait betebeharrak ezartzen dizkie toki erakundeei, herritarrekiko harremanei eta espedienteak izapidetzeko erari dagokienez.

IV. Foru aldundiak toki erakundeen esku jarri du udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integralerako sistema informatiko bat, Arabako toki erakundeei administrazio elektronikoa iradokituz eraginkortasun funtzional osoa lortzeko beharrezkoak diren zerbitzuak eskaintzeko. Gainera, toki erakundeentzako barne kudeaketa integrala ahalbidetzen duten beste modulu batzuk ere baditu sistemak.

Modulu hauek ditu, gaur egun:

A) Administrazio elektronikoko moduluak (legez nahitaezkoak):

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

- Hirugarrenen eta lurraldearen modulua.
- Sarrera eta irteera erregistroaren modulua.
- Idazkaritza modulua.
- Herritarrak atenditzeko zerbitzuaren modulua.
- Egoitza elektronikoaren modulua.
- Espedienteak kudeatzeko modulua.

B) Barne kudeaketako moduluak (ez dira nahitaezkoak Arabako Foru Aldundiarentzat):

- Biztanle erroldaren modulua
- Hauteskunde modulua.
- Diru sarreren eta dirubilletaren kudeaketa modulua.
- Kontabilitate modulua.
- Ondare modulua.
- Nomina eta gizarte aseguruaren modulua.

V. Arabako Foru Aldundiaren asmoa da udalerriei eta beste toki erakunde batzuei zerbitzu hori eskaintzen jarraitzea. Horiek horrela, hitzarmen eredu hau onetsi da, eta sistema erabiltzeko baldintzak epe luzera formalizatu nahi dituzten erakundeek sinatu dute, eta

ADOSTEN DITUZTE

Kausula hauek:

Lehenengoa. Hitzarmenaren xedea (49.c artikulua) Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (SPAJL).

Hitzarmen honen xedea da oinarritzko baldintzak ezartzea xx(e)ko Udalak Arabako Foru Aldundiak bere eskura jarri duen udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integralerako sistema informatikoa erabiltzeko.

Bigarrena. Alderdiak onartzen dituzten betebeharrak eta konpromisoak (SPAJL, 49.d artikulua) eta horiek bete ezean jasango dituzten ondorioak (SPAJL, 49.e artikulua).

A) Arabako Foru Aldundiaren betebeharrak:

xx(e)ko Udalari aholkularitza eta laguntza tekniko eta operatiboa ematea, udal administrazio elektronikoa ezartzeko eta eguneratuta mantentzeko.

Arabako Foru Aldundiak administrazio elektronikoko moduluak emango dizkio xxx(e)ko Udalari. Horrez gain, barne kudeaketako moduluak erabiltzeko aukera emango dio, betiere aurrekoak erabiltzen badira.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



Foru aldundiak administrazio elektronikoaren arloan dauden betebeharrak betetzeko behar diren baliabideak eman beharko dizkio uneoro xxx(r) i.

Ildo horretan, foru aldundiak sistemaren moduluak aldatu ahal izango ditu, betiere horien funtzionaltasuna lehendik daudenen antzekoa edo handiagoa bada. Kasu horretan, Arabako Foru Aldundiak sisteman dauden datuen migrazioa bermatu beharko du.

Arabako Foru Aldundia arduratuko da sistemaren arkitektura aukeratzeaz. Sistemak berak dituen datuen segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko ditu.

Horrez gain, foru aldundiak erabiltzaileei arreta emateko zentro bat eta behar den prestakuntza emango die toki erakundeko langileei.

Arabako Foru Aldundiak zuzenean eman ahal izango ditu zerbitzu horiek guztiak, edo administrazio kontratazio publikoaren arloan jasotako mekanismoen bidez.

B) xxx(e)ko Udalaren betebeharrak:

xxx(e)ko Udalari dagokio udalen eta beste toki erakunde batzuen kudeaketa integralerako sistema informatikoaren moduluen funtzionamendurako beharrezkoa den mikroinformatika eta oinarritzko softwarea (sistema eragilea, ofimatika, antibirusa, sinadura elektronikoa...) hornitzea.

Erakundea izango da datuen jabea, eta Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak ezarritako betebeharrak bete beharko ditu.

Hirugarrena. Hitzarmenean ezarritako kudeaketa esleipena gauzatzen den jarraitzeko, zaintzeko eta kontrolatzeko mekanismoak (SPAJL, 40.f artikulua).

Jarraipen batzordea eratzen da, alderdien arteko lankidetzaren eta harremana estuak izan daitezkeen eta hitzarmenaren xedea gauzatzeko egin beharreko jarduketak ondo koordinatzeko.

Hona hemen kideak:

- Arabako Foru Aldundiaren bi ordezkari
- Hitzarmen hau sinatzen duten toki erakundearen bi ordezkari.

Jarraipen batzordea alderdietako edozeinek eskatuz gero bilduko da, hitzarmena behar bezala betetzeko lanetan sortzen diren arazoak aztertzeko.

Alderdiek hitzarmenaren dute elkar hartuta aurkituko dietela irtenbidea hitzarmen hau edo honen ondoriozko erabaki espezifikoak interpretatu edo betetzean sor daitezkeen desadostasunei.

Laugarrena. Hitzarmena aldatzeko araubidea (SPAJL, 49.g artikulua).

Hitzarmen honen edukia aldatu ahal izateko, sinatzaileak ados jarri beharko dira.

Aldaketarik egin ez gero, nahikoa izango da egungo klausulen gehigarri bat onestea.

Bosgarrena. Indarraldia (SPAJL, 49.h artikulua).



Hitzarmen hau indarrean egongo da sinatzen denetik 2024ko abenduaren 31ra arte. Indarraldia amaitu baino lehen luzatu ahal izango da, behin bakarrik eta gehienez beste bi urterako; horretarako, alderdien ahobatezko adostasuna beharko da.

Seigarrena. Hitzarmena azkentzeko eta suntsitzeko arrazoiak (SPAJL, 51. artikulua).

Hitzarmen hau indarraldia amaitutakoan azkenduko da, edo suntsiarazteko arrazoiren bat sortzen denean.

Hitzarmena suntsiarazteko arrazoiak dira:

- a) Hitzarmenaren indarraldia igarotzea hura luzatzea adostu gabe.*
- b) Sinatzaile guztiek edo haien karguetako ondorengoek aho batez adostea hitzarmena suntsitzea.*
- c) Oro har, alderdietako batek hitzarmen honetatik eratorritako betebeharrak ez betetzea eta, bereziki, sistemaren administrazio elektronikoko moduluak ez erabiltzea.*

Kasu horretan, alderdietako edozeinek errekerimendua helarazi ahal izango dio betebeharra bete ez duen alderdiari, epealdi jakin batean bete dezan bete gabekotzat jotzen den betebeharra edo konpromisoa.

Errekerimenduan adierazitako epea igaro ondoren egoerak bere horretan jarraitzen badu, hau da, ez bada betetzen bete gabekoa, errekerimendua egin duen alderdiak besteari jakinaraziko dio hitzarmena suntsitzeko arrazoiak gertatu dela, eta hitzarmena suntsituzat joko da.

d) Hitzarmena baliogabea dela aitortzea ebazpen judizial bidez.

SPAJLk 52. artikuluan xedatzen duenaren ondorioetarako, alderdiek adosten dute hitzarmena suntsitzeak inolaz ere ez duela ekarriko sinatzaileek kalte ordaina eman beharra.

Zazpigarrena. Hitzarmenaren izaera eta jurisdikzio ordena eskuduna.

Hitzarmen honek administrazio izaera dauka. Hitzarmenaren interpretazioaren eta gauzatzearen inguruan sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioari jakinarazi beharko zaizkio eta haren eskumenekoak izango dira.

Eta ados daudela adierazteko, alderdiek agiri hau sinatzen dute goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

Eranskina: Sistema ezartzeagatik eta mantentzeagatik 2026. urtera arte zenbatetsitako kostuak



KONTZEPTUA	JARDUKETA	2022	2023	2024	2025	2026	GUZTIRA
Administrazio elektronikoko modulua	Ezarpena, konfigurazioa eta migrazioa	722.000,00					722.000,00
	Mantentze lanak eta hedatzeko aholkularitza		350.000,00	350.000,00			700.000,00
	Ohiko mantentze lanak				280.000,00	280.000,00	560.000,00
Barne kudeaketako modulua	Ezarpena, konfigurazioa eta migrazioa		400.000,00				400.000,00
	Mantentze lanak eta hedatzeko aholkularitza			300.000,00			300.000,00
	Ohiko mantentze lanak				250.000,00	250.000,00	500.000,00
Gastu orokorrak	Telelana	50.000,00					50.000,00
	BLZ Front office		60.000,00	60.000,00	60.000,00	60.000,00	240.000,00
	BLZ Herriarrak		70.000,00	70.000,00	70.000,00	70.000,00	280.000,00
	Espediente historikoen gordailua	130.000,00					130.000,00
	Erabilgarritasuna hobetzea		50.000,00	150.000,00	150.000,00	50.000,00	400.000,00
	AKSA baliabide zuzenak	150.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00	150.000,00	750.000,00
UDAL INFORMATIKA, GUZTIRA		1.052.000,00	1.080.000,00	1.080.000,00	960.000,00	860.000,00	5.032.000,00

BIGARRENA.- Alkate-Udalburuari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

HIRUGARRENA.- Akordioa Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea.

8.- Alkatetzaren Dekretuen kontu ematea

Jarraian, Udaltzari jakinarazi zaizkio 2022/231 eta 2022/316 bitarteko Alkatetza Dekretuak, bi horiek barne. Horien guztien edukia, laburki, honako hau da:

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/231.- Asasam. 2022 ekitaldian emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/231.- Nortegas Energía D. SAU. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/233.- Ned Suministro GLP SAU. 2022/1ean zehar energia hornidura erabiltzeagatik tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/234.- Orange Espagne SAU. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/235.- Baser Comercializadora de Ref SA. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/236.- Totalenergies Clientes SAU. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/237.- EDP Clientes Sau. Gas horniduragatik tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/238.- Totalenergies Electricidad y Gas SA. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/239.- Goiener S. Coop. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/240.- Amukatu Elkarte. 2022 ekitaldian emandako dirulaguntzaren % 80 ordaintzea.



ALKATETZA DEKRETUA – 2022/241. -Acciona Green Energy D. SLU. Tokiko jabari publikoko aprobetxamenduagatik tasa, 2022/1.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/242.- A.R.L.C.- Sojon zuhain biltegia eraikitzeko obraren hondakinak kudeatzeko fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/243.- FJ.A.G.- Luiaondon tokiko sareetako azpiegituren dokumentu eta espedienteetarako sarbidea eta horiek kontsultatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/244.- Gazteok Management Kultur Lanak SLU- San Prudentzio 2022 jaietako musikako ikuskizunak.

ALKATETZA DEKRETUA 2022/245.- Puro Relajo- San Prudentzio 2022 jaietako kontzerturako zerbitzuaren kontratua.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/246 .- Errota Azpiegiturak eta Produkzioak SLU – San Prudentzio 2022 jaietarako karpa alokatzea.

ALKATETZA DEKRETUA - 2022/247 .- Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen Gaineko Zerga onestea, 2022 urtekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/248.- Etxaurren Ikastolako IGE- 2022 martxoaren ordainsariak ordaintzea, talde psikopedagogikoa eta bi urteko gela.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/249.- EM.C.G.- Luiaondoko etxebizitzan leihoak aldatzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/250.- P.J.H.- Luiaondoko etxebizitzan komuna berritzeko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/251.- Mobidecor 2000 SL.- Consorcio de Aguas Kantauriko Urkidetzak aurkeztutako errekerimenduagatik hasitako espedientea artxibatzea, errekeritua bete delako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/252.- I.A.U.- Informazio gehigarria eskatzea, Izorian nekazaritza-biltegia egin eta lanabesa txabola berritzeko obraren lehen erabilerako lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/253.- D.A.S. eta AM.S.I.- Llantenoera eraikinaren estalkia berritzeko obraren lehen erabilerako lizentzia eman eta obraren hondakinak kudeatzeko ordaindutako fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/254.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra-Menagaraiko eskola zaharrean dagoen etxebizitzaren barnealdea berritzeko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/255.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra-Dokumentuak eskatzea, Beotegiko bolatokia berritzeko eta ingurua urbanizatzeko obretako hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/256.- Alday Fundazioa. EALZ kudeatzeagatik gastuak ordaintzea, 2022ko martxoan.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/257.- Familiei laguntzak emateko deialdia eta oinarriak onestea; laguntzak EAeko udalerrietako udal-kiroldegien kide (banakakoak edo familiakoak) kuotak ordaindu ahal izateko ematen dira.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/258.- E.A.G.- Maroñoko etxebizitzan estalkia berritzeko obraren lehen erabilerako lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus



ALKATETZA DEKRETUA – 2022/259.- JM.L.V.- Beotegiko etxebizitzan estalkia berritzeko obren lehen erabilerako lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/260.- MC.Z.L.- Dokumentu gehigarriak eskatzea, Llanteno etxebizitzan estalkia berritzeko obraren lehen lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/261.- JA.S.J.- Zuhatzako etxebizitzan instalazio fotovoltaikoa jartzeko udal obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/262.- Erregistratutako fakturen kontabilitate-zerrenda onestea, F/2022/3.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/263.- V.Q.S.- Errekeritutako dokumentuak aurkezteko luzapena ematea, Izoriako etxebizitzan portxea eraikitze eskatze obra-lizentzia izapidetu aldera.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/264.- L.R.L.- Zuhatzako lanabestarako biltegiko estalkia berritzeko obraren lehen erabilera lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/265.- A.S.T.- Izoriako baserria berritzeko obretako hondakinen kudeaketaren fidantza eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA.- 2022/266.- J.O.A.- Luiaondon igerilekua instalatzeko obren lehen erabilerako lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzeko dokumentuak eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/267.- A.S.T.- IZORIAko baserria berritzeko obra hasteko baimenarako dokumentuak eskatzea eta lehen erabilerako lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/268.- M.D.S.A.- Dokumentuak eskatzea, Menagaraiko obrak legezatzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/269.- Alkatearen eta langile funtzionarioen ordainsarien ordainketa likidoa onestea, 2022ko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/270.- 2021/22 Eskualdeko Enplegu Planean (PECO) kontratatutako langileen ordainsaria ordaintzea onestea, 2022ko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/271.- E.A.G.- 2022/258 Alkatetza Dekretuaren transkripzioan egindako akatsa zuzentzea; dekretua Maroñoko etxebizitzan estalkia berritzeko obren lehen erabilerako lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzeari buruzkoa da.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/272.- B.D.C.M.- C-2 taldean hirurtekoa jasotzeko eskubidea aitortzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/273.- Aiara Valley SL- AFAko Historia eta Arkitektura Ondarea zerbitzuari txostena eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/274.- Llanteno etxebizitza berritzeko obrak hasteko baimena ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/275.- Luyando System SL- Jarduera hasteko baimenerako dokumentuak eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/276. – J.C.Gk 2021/725 Dekretuaren aurka aurkeztitako errekurtoa ezezte; dekretua Aiarako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu enpresetako errotulazioan euskara erabilteagatik dirulaguntzak emateari buruzkoa da.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus

Comentado [MAT1]: jatorrizkoan M bakarrik jartzen du, baina aipatzen den dekretua ikusiz jakin dut Maroño dela



ALKATETZA DEKRETUA – 2022/277.- Udaleko alderdi politikoei ekarpen ekonomikoa egitea, 2022ko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/278.- Udalkideei ekarpen ekonomikoa egitea onestea, 2022ko apirila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/279.- Energía XXX. 2022/1eko tokiko jabari publikoa aprobetxatzeagatik tasa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/280.- Endesa Energía SAU – Tokiko jabari publikoko tasa, 2022ko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/281.- Repsol Comercializadora de E. y G. SLU. 2022/1eko tokiko jabari publikoko gas-hornidura aprobetxatzeagatik tasa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/282.- Repsol Comercializadora de E. y G. SLU. 2022/1eko tokiko jabari publikoko hornidura elektrikoa aprobetxatzeagatik tasa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/283.- L.U.P.- Rustiko baten OHZa salbustea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/284.- A.U.P.- Rustiko baten OHZa salbustea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/285.- HNAS. UP. Rustiko baten OHZa salbustea ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/286.- Etxaurren Ikastolako IGE- 2022 martxoaren ordainsariak ordaintzea, talde psikopedagogikoa eta bi urteko gela.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/287.- Elkarkidetzeta Pentsioak. 2022ko apirileko faktura likidatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/288.- Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusia- 2022ko martxoko kotizazioa ordaintzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/288.- Behientzako kuadra eraikitze obraren lehen erabilerako lizentzia eman eta hondakinen kudeaketaren fidantza itzultzeko dokumentuak eskatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/290.- Aiarako Udalean administrazio orokorreko teknikari 1 plazaren hautaketa-prozesura aurkeztu direnen onartu eta ezeztuen behin behineko zerrenda onestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/291.- AFA – PFEZ atxikipena ordaintzea, 2022ko 1. hiruhilekoa.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/292.- F.J.O.B. Murgako etxebizitzan obrak legeztatze lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/293.- J.A.V.G.- Izoriako etxebizitzan instalazio fotovoltaiorako obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/294.- A.B.I- Dokumentu gehigarriak eskatzea, Olabezaren (Quesería Isasi) eraikinean estalkian instalazio fotovoltaiorako udaleko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/295.- Izoriak Administrazio Batzarra- Izorian Urizandi errota berritzeko udaleko obra-lizentzia ematea – II. fasea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/296.- B.R.F.U.- Zuhatzako etxebizitzan instalazio fotovoltaiorako udaleko obra-lizentzia ematea.



ALKATETZA DEKRETUA – 2022/297.- Alkate eta langile funtzionarioen ordainsarien ordainketa likidoa onestea, 2022ko urtarriletik martxora atzeratuak.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/298.- 2022ko apirilaren 22koa den 2022/256 Alkatetza Dekretua gaizki transkribatzeak ekarri duen akats materiala zuzentzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/299.- Eskualdeko Enplegu Planean (PECO) kontratatutako langileen ordainsaria ordaintzea onestea, 2022ko urtarriletik apirilera atzeratutakoak.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/300.- LUIAONDOKO PADURA KALEA, 35.- Dokumentu gehigarriak eskatzea, Luiaondoko Padura kaleko 35 zenbakian dagoen eraikinean igogailua instalatzeko udaleko obra-lizentzia izapidetzeko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/301.- Alday Fundazioa.- EALZ kudeatzeagatiko gastuak ordaintzea, 2022ko urtarrila.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/302.- MT.V.U.- Hondakinak kudeatzeko fidantza eskatzea, Arespalditzako etxebizitzan estalkia berritzeko obra-lizentzia emateko.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/303.- LUIAONDOKO PADURA KALEA, 35.- Hondakinen kudeaketa fidantza eskatzea, Luiaondon dagoen eraikinean igogailua instalatzeko obrarako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/304.- 3/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez gaitutako kredituaren espedientea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/305.- SVCAR SC. 2021eko ekonomi jardueren gaineko zergan likidazioa egiteari aurkeztutako alegazioa balioestea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/306.- 3/2022 Alkatetza Dekretuaren bidez gaitutako kredituaren espedientea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/307.- E.G.E.- Aparkatzeko Txartela ordeztu, galdu zaiolako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/308.- Menagarai-Beotegiko Administrazio Batzarra.- Edateko uraren sarean konponketa partziala egiteko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/309.- I.A.V.- Udaleko obra-lizentzia eman eta dokumentuak eskatzea, Salmantonen burbuila-ostatuak instalatzeko obra hasteko baimenerako.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/310.- Vencliser SA- Etxaurren ikastolan beroa sortzeko eta EUB sistemarako proiektua idazteko zerbitzuaren kontratua esleitzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/311 – Elder Medio Ambiente SLL- Aiaran laborantza-plastikoen bilketa luzatzea.

ALKATEZA DEKRETUA – 2022/312.- Udal eta kuadrillek sustatutako ekimen kulturalak garatzeko dirulaguntzen deialdiaren babespean jartzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/313.- MA.V.A.- Menoioko 57-B partzelan dagoen eraikinean instalazio fotovoltaikorako udaleko obra-lizentzia ematea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/314.- I.A.V.- Salmantónen bi burbuila-ostatu eraiki eta instalatzeko obraren hondakinen kudeaketa fidantza eskatzea.



ALKATETZA DEKRETUA – 2022/315 – Euskaraz Koop. Elkartea AEK – Berbalagun-Gurasolagun programa dinamizatzeko zerbitzuaren kontratua luzatzea.

ALKATETZA DEKRETUA – 2022/316.- B.C.M. Aitortutako atzeratutako hiru urtekoen ordainsaria ordaintzea, 2021 urtea.

Ez da ezer esan horren inguruan, eta Udalbatza Osoa jakitun geratu da.

9.- Eskaerak eta galderak.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) hartu du hitza, Anaiarte Zaharreko aktak eskatzeko. Gainera, adierazten du Aroko kanadiar igarobidea oso zikina dagoela, eta garbi dezatela eskatzen du.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) galdetu du ea zergatik ez den hitz egin Garabideren programari buruz.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ekaineko batzordeetan aztertuko dela.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du epea ekainaren 17an amaitzen dela, eta ez duela denborarik emango ekarpenak egiteko.

- Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) andreak adierazi du Urbideren deialdia heldu zaiola, eta gaietako bat estatutuak onestea dela. Ez daki posiblea izango den guztiek elkarrean begiratzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du irakurketa azkarra egin daitekeela, pentsatzen duelako ez dutela aldaketa handiegirik egin.

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) esan du deigarria iruditu zaiola TEFFFaren banaketari dagokiona, ez duelako eraginik izango Administrazioako Batzarretan; horregatik dio hoberena litzatekeela ekarpenak egiteko biltzea.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du bere ustez hasierako bilera dela, estatutuak aurkezteko bakarrik. Urbiderek jarriko da harremanetan, ea lehen bilera hori informaziozkoa bakarrik izango den, eta prozeduraren gaineko informazioa lortzeko.

Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) estatutuak helarazi dakizkiola eskatu du.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du, ikastola berritzeko ideia-lehiaketari heltzeko. Galdetu du ea oinarri gisa erabiliko den dokumentua egin gabe dagoen, eta ea zer proposatuko duten ideien lehiaketan, eta haiek nahi dutena aurkezteko aukera egongo den.



Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du informazio-batzordean adierazi zela dokumentu horrek zuzendaritza eta IGEak bidali dizkiguten ideiak direla, eta dokumentu hori izango dela ideien lehiaketaren oinarria, Udalak antzeman ditzakeen beste beharrekin batera. Dokumentu horiek informazio batzorde batera eramango dira, alderdi guztiek ekarpenak egin ditzaten.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du 1826 sarrerari buruz galdetzeko, Udalak sustatutako Atxa jauregian egingo den obra bati buruz, ea zer den.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du seguru asko obragatik Ondarek bidali duen txostena izango dela, Udalak eskatu duena.

- Karmele Población Martínez zinegotzi andreak (EH BILDU) Zorroza enpresaren eskabideari buruz galdetu du, arriskurik gabeko hondakinak baloratzeari buruzkoa dena.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du horren gaineko hirigintzako txostena eskatu dutela, eta teknikaria prestatzen ari dela.

- Koldo Mendioroz Galdaroz zinegotzi jaunak (EH BILDU) esku hartu du dagoeneko bi urte direla Sierrako ordenantza izapidetzen hasi zenetik. 2020ko martxoan, dio, alegazioak egin zizkioten ordenantza horri. 2022 urte honetan berriz Sierrara igota ordenantza arauemailerik egon gabe jarraitzen du, abereen gehiegizko ustiapena egoten jarraitzen du. Gainera, laguntza teknikoa emateko kontratatu den enpresak egiten ari den lana nahiko urria da, kontratu horri berriz begiratu beharko da, zerbitzuak gero eta ganora gutxiago duelako.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du ordenantza badagoela, 2015ean onetsi zela, eta horrekin, hobe edo okerrago, aprobetxamendua arautzen dela. Hori da dagoena.

Aldatu gabe egoteko arrazoia da Nekazaritza Sailak eteteko gomendioa eman zuela, NPBren irizpideetan aldatetak onetsi behar zirelako, eta hobe zela itxarotea, Sierraren ordenantzan NPBren aurka doan ezer ez onesteko.

Enpresaren lanari dagokionez, haien gainean egongo gara, erantsi du, betebeharrak bete ditzaten, eta kontratua lizitaziora aterako dela.

Koldo Mendioroz Galdarioz zinegotzi jaunak (EH BILDU) hitza hartu du gaineratzeko 2 urte baino gehiago daramatzagula ordenantza egiteko. Eta NPBren irizpideen aitzakiak ez duela balio, onestea eta ondoren aldatzeko aukera zegoela, beharrezkoa izatekotan. Abereen igoera erregulatzea komeni da, lehenbailehen.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) hitza hartu du adierazteko esandakoaren arabera, egindako bileretako batean Urbideren akta igorriko zela, baina ez zaiela heldu.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) azaldu du hurrengo bileran onetsi behar dela, eta horregatik ez dela bidali.



Aiarako Udala
Ayuntamiento de Ayala

Iratxe Parro Uzquiano zinegotzi andreak (AIARA BATUZ) dio egin zen hori Amurrion izan zela, eta gero ohiz kanpoko beste bat egon dela, baina oraindik ez dela aktarik heldu.

- Marian Mendiguren Mendibil zinegotzi andreak (EH BILDU) adierazi du monolitoari buruz hitz egin zela, baina ez dela batzordeetan jorratu.

Gentza Alamillo Udaeta alkate jaunak (EAJ-PNV) erantzun du uda heldu baino lehen dagokion informazio batzordean landuko dela.

Jorratzeko beste aztergairik ez dagoenez, alkate udalburuak bilera bukatutzat eman du hemeretziak eta hogeit hamar minutu direnean, eta aztertutako guztia eta hartutako erabakiak jasota gera daitezten, akta hau egin dut eta neuk, idazkariak, egiaztatzen dut, Arespalditzan, bi mila eta hogeita biko maiatzaren bian.

O.E.

JARDUNEKO ALKATE-UDALBURUA,

IDAZKARIA,

Stua.: Gentza Alamillo Udaeta.

Stua.: Naiara Lazpita Marcos.

I.F.K. C.I.F. P0101100F

✉ B^oLa Iglesia, 3 - 01476 Arespalditza (Araba) - ☎ 945399013 - 📠 945399331 - 📧 info@aiarakoudala.eus - 🌐 www.aiarakoudala.eus